

De

editor

MONOGRAFIKOA: Zentroetako Hobekuntza Planak / Ebaluazioa

KALITATEA HEZKUNTZAN

Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluko Presidentea

Hezkuntza komunitateko kide guztiek hezkuntza-kalitatearen alde egiten dute lan; etekinak hobetzeagatik. Nazioarteko erakundeak (UNESCO, ELGA, Mundu Bankua...) heziketaz arduratzen dira eta kalitate mailarik handienak eskatzen dituzte heziketarako. LOGSEko IV. titulua hezkuntzako kalitateari buruzkoa da. Kalitatea da hezkuntzaren kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoaren izateko arrazoiak. Inor ere ez da hezkuntza-kalitatearen aurka aritzeko bezain burugabea.

Denok kezkatzen gara hezkuntza sistemako kalitateaz. Zergatik ez dago, beraz, gai hori behar adina konponduta? Nire ustez, kontzeptu horren beraren edukia zehaztea erraza ez delako.

Kalitatea esatean objektu bati buruz aritu ordez pertsona bati, ikasle bati, buruz ari bagara, zein izan behar dira kalitatearen faktoreak? Kontzeptu hori aplikatu al dakioke heziketa prozesuari bere emaitza nortasuna osatzea izanda? Kalitatearen faktore bezala hartu behar al da hezkuntza prozesuaren bidez pertsonari gehitu zaion balioa edo bere garapen osorako egin duen aurrerapausoa? Nola neurtu bi alderdi pertsonal horiek? Zer ari da sistema ematen aukera berdintasun printzipioari? Eta gizarte integrazioari?

Hezkuntza arloan eztabaida asko izaten da kalitate-

aren zergatiak buruz, baina oso gutxi kontzeptu horren esanahiari buruz. Kalitateaz ari bagara, hezkuntzaren helburuak zein diren argitu beharko dugu. Kasu horretan ezin da saihestu hezkuntzan askatasuna izatearen eskubide konstituzionala, hezkuntzako edukiak norberaren konbikzioetara doitzen dituen, ezta baliabide publikoak eta oinarrikoak gizarte eta ekonomia politikan aplikatzeko eraginkortasun printzipioa ere. Hezkuntzaren oinarrian egon behar du trebatzeko ondasunak eskura berdin izatea ere, aukera berdintasuna erraztu behar du gizarte desberdintasunak gainditzeko. Desberdintasun horiek hainbat arrazoigatik egon daitezke: jaiotzetik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik. Azkenik, aniztasuna batzen duen komunitate bateko kide izatearen sentimendua sorrarazi behar du sistemak, guztien balioek parte hartzen dutena; hau da, gizarte kohesio handiagoa sustatu behar du.

Kalitateaz ari bagara, ezin dugu bazterrean utzi eguneroko, ohiko kudeaketaren markoa, eskolarena, behar diren bitarteko eta prozesuena. Zer egin "eskola eraginkorra" izan dadin, ikasle guztien garapen globala lor dezan salbuespenik gabe aurretik dituzten baldintzak kontuan hartuta? Zentroetako zuzendaritzaz arduratzen direnak, berriz, eskolen funtzionamenduaz arduratzen dira. Ikasgelak eta zentroak etengabeko hobekuntza funtzionala hasteko, "eskolako eraginkortasuna" pixkanaka hobetzeko, zer egin behar duten galdetzen diete euren buruei.

Hezkuntzako kalitateari eskaini zaion lan monografiko honetan, kontuzko gai honi heltzeko adituen, guraso elkarteen, hezkuntza-agintarien eta irakasleen iritzia bildu nahi izan ditugu. Eztabaida lasaia hasi nahi izan da, kalitatearen bidezidorrean irizpidez beterik egin ahal izateko aurrera.

a

eskolara

EBALUAZIOA ETA KALITATEA HEZKUNTZA ZENTROETAN

M^a Antonia Casanova, Hezkuntza Sustapenerako Zu-zendari Nagusia (Hezkuntza Kontseilaritza. Madril)

Ebaluazioa eta kalitatea bi termino dira, bi kontzeptu eta ondorioz nahitaez lotuta doazen bi praktika. Zertarako ebaluatuko da hezkuntzan hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ez bada? Nola hobetu kalitatea ebaluazioaren bidez ez bada? Ebaluazio horrek datu egokiak eskaini beharko ditu oinarritutako erabakiak hartu ahal izateko hobekuntzarako. Horrela egiten ez bada –agian baieztapena oso zorrotza izango den arren–, hezkuntzan ebaluazio eredu egokia ez dela erabiltzen adierazi dezake batetik, eta, bestetik, hezkuntzan etengabeko hobekuntza kualitatiboa bermatzeko behar den sistematizazio egokirik gabe hezten dela.

Ebaluazioa amaierako egiaztapen hutsa bada, ez da eraginkorra zentroetako eguneroko heziketa hobetzeko. Gehitze bidez egindako ebaluazio horrek epe ertain eta luzean neurriak hartzeko besterik ez du balio, baina eskolako eta ikasgelako ohiko praktikatik urrunduta gelditzen da. Hori dela eta, irakasleak eta zuzendaritza ez ditu asebetetzen, haien kargu dauden ikasleengan eragin zuzena izango duten berehalako hobekuntzak nahi izaten baitituzte. Horregatik, beharrezkoa da ebaluazio jarraitua duen ereduren bat aplikatzea, izaera hezigarria duena, zentroan gertatzen dena eguneratuta ezagutzeko aukera eta erraztasuna emango duena, eta horren ondorioz alderdi positiboak indartu eta disfuntzioak zuzenduko dituen alternatiba baliagarriak berehala hartzeko aukera eskainiko duena. Hasierako bigarren baieztapenari dagokionez, hezkuntza sisteman edo ikastetxeetan "ez ebaluatze" erabakiaren ondorioz zoriz hartu behar izaten dira erabakiak, ez baita erabakiak hartzeko datu fidagarriak izaten. Zentroko –eta sistemako– hezkuntza-kalitatea egiaz hobetu nahi bada, beharrezkoa da egiten dena eta lortzen dena balioztatzea. Lortutako informazio horrekin elementu sistematiko desberdinak egokitzen joan beharko da proposatutako helburuak behin betiko gainditzeko.

Premisa horiekin eta une hauetan dauden hezkuntza kalitatearen ikuspegi ugari kontuan izanda, nola teoria desberdinen arabera hala iritziak ematen dituzten sektore desberdinen arabera, nire ustez egokia litzateke aurrera egiteko eta hobekuntza jarraituen bide bezala ikustea kalitatea; beti hobetu behar da hezkuntzan, inoiz ez da erabat lortzen. Helmuga mugikorra da, utopikoa, hurbiltzen garen heinean aldentzen da. Eduardo Galeanok ederki adierazi zuen: "Zerumugan dago, bi urrats hurbildu naiz / eta bi urrats aldentu da, / hamar urrats egin ditut / eta zerumugak, beste hamar egin ditu harantzago. / Ni asko ibili arren / inoiz ez dut harrapatuko. / Zertarako da utopia? / Horretarako. / Ibilian jarraitzeko". Kalitatea ez da egonkorra, finkoa, iritsi eta gustura geldi daitekeen toki bat. Hezkuntza-kalitateko helburuak aldatu

egiten dira gizartearen eta pertsonen aldaketekin batera, eta aldaketa horiek azkarra eta etengabeak dira. Horregatik guztiagatik, planteatu beharreko ebaluazio ereduak irudi aldakor eta polifazetikoen ikuspegi sustatu behar du uneoro, heziketa ekintzaren errealitate konplexua azaleratu behar du.

Ikuspegi horretatik, zentzu batean edo bestean egiten dira ekintzak, helburuak aurrez ikusi ondoren, biderako gida izango diren adierazle batzuk markatzen dira, horiei buruz hausnartzen da bidean, behar izanez gero aldatu egiten dira eta helburu horiek betetzeko behar diren hobekuntzak sartzeko doitu, eta aurrera jarraitzen da... Ez da bide bakarra egongo, seguru asko, baizik eta bide batetik baino gehiagotatik joango da helmugara, bidea egiteko moduak ere desberdinak izango dira, hasierako abiadura ere bai, egingo diren geldialdiak... dena dela, bidean ikasten eta hobetzen da, ez helmugan. Horregatik, garrantzitsua da behar diren aldaketak bidean sartzea (ebaluazio jarraitua eta hezigarria), bide hori hasi duen ikasle asko atzean gelditu arte zain egon gabe, sustatzailea izateaz gain norberaren itxaropenak gehitzen laguntzen duen azken helmuga horretara iritsi gabe. Horrez gain, derrigorrezko hezkuntzan funtsezkoa da denak iritea, bakoitza bere aukeren arabera. Denek dute kalitatezko hezkuntza eta aukera berdintasuna izateko eskudidea, bakoitzaren ezaugarri indibidualen eta sozialen arabera. Kalitatea eta hezkuntza-ebaluazio elkarri lotuta doaz hala-beharrez, gure ikasleen eguneroko hezkuntza –haien bidea, bizitza– hobetzea beharrezkoa baita, heziketa arloan parte hartzen duten alderdi guztiek hainbeste aldarrikatu eta desio duten kalitate horretaz gozatu nahi bada.

Eredu desberdinak helburu desberdinetarako

Zentroetako ebaluazio instituzionalari buruzko bibliografia espainiarra, Ministerioaren araudia eta Autonomia Erkidegoetako erreparatu gero, mota askotako ekimenak ikusiko ditugu planteamenduari eta praktikara eramateko prozedurari dagokionez. Heziketa zentroa ebaluatze eredu zehatz bat aukeratzenean, kontuan izan behar da aukeratu dena ebaluazio horrekin lortu nahi denaren arabera izango dela. Ez da gauza bera eredu bat edo bestea aukeratzea. Bakoitzak helburu batzuk ditu, erakundearen funtzionamendurako xede batzuk eta baita ideologia zehatza ere. Ebaluatze adierazleak ezartzen direnean, ikastetxeak bere egiteko moduan hartuko duen bidea adierazten da, dituen helburuak, eskaintzen duen partehartze soziala, lehentasuna duten faktoreak, etab. Eredua kuantitatiboa eta finalista edo kualitatiboa eta prozesuala izan daiteke –nahiz eta bi ikuspegi horiek ez duten bata bestea kanpoan uzten, baizik eta osagarriak dira–; hasierako

¹ K. Kavafis-en "Ítaca" poema irakurtzeko gomendatzen dizuet, (Poesmas. Bartzelona, Seix Barral, 1994).

² León Felipek dioen bezala: "Bidak tenkatuta eta/ hegaldari eutsiz noa/ garrantzitsuena ez baita bakarrik eta azkar iritea/ denak eta garaiz iritea baizik".



lerro hori lan prozeduran eta aurreikusitako helburuetan islatu behar da, eta horiek guztiek koherenteak izan behar dute. Horrelakorik ezean, kontraesanak azaleratuko dira eta ebaluazio proiektua bideraezina izango da. Hau da, zentroko zuzendaritza eta irakasle taldeak erabakiko du zentroa ebaluatzen ere duzkeen egokiena zein den, aurrera eraman nahi duten hezkuntza proiektua kontuan izanda.

Zehatza izateko asmorik gabe, gure herrian ebaluatzen aritu diren eta euren proposamenak (baliozkoak denak, zentro bakoitzaren nahiak kontuan hartuz gero) utzi dizkiguten egile batzuk aipatu nahi ditut: Isaacs, D. (1977), López, J.A. eta Darder, P. (1985), Garrido, P., Jabonero, M. eta Rivera, D. (1989), Barberá, V. (1990), Santos Guerra, M.A. (1990), Messtres, J. (1990), Cea, F. eta beste (1992). Horiek diren euren lan txukuna eta egokia utzi digutenetako batzuk. Proposamen horiek urteek aurrera egin ahala heziketako garai eta gizarteko errealtate berrietara moldatu beharra egongo litzatekeen arren aplikatu behar izanez gero. Hezkuntza Ministeriotik irten diren bi proposamen azpimarratu nahi nituzke, gainera: Zentroen Ebaluazio Plana (1991), heziketako mila erakunde baino gehiagotatik ezarri zena, eta kalitatea kudeatzeko Europako eredu (EFQM 1997), "erabateko kalitatearen" korrante berrien barruan, gaur egunera arte bertsio desberdinetan iristen dena eta hala jarraitzen duena.

Lehen esan bezala, eredu kuantitatiboek eta kualitatiboek, finalistek eta prozesuak, partehartzaileek eta direktibistek... ikuspegi ebaluatzaile zabala eskaintzen dute, eta, egia esan, azkenaldian, ahuldu direlakoan nago. Heziketaren kalitatea ongi oinarrituta hobetzeko, ziur nago ebaluatzea nahitaezkoa dela, eta era berean, uste dut gure eskoletako kultura ezartzeko adina indar ez duela eredu batek berak ere izan. Ebaluazio-kultura falta da heziketa alorrean eta lehen baino lehen gauditu beharra dago hori, batez ere orain bezala gizarteko aldaketak ikaragarriak izan eta ekimen berriak (fidagarriak eta baliozkoak) eskatzen dituztenean, egunero agertzen diren eskakizunei erantzuteko. Beharrezkoa da Administrazioetatik eta irakaskuntza zentroetatik ebaluatzen eredu bideragarriak bultzatzea sistemako heziketa kalitatea lortu eta hobetzeko.

Ebaluatzen eta hobetzeko proposamena

Heziketa-kalitatearen etengabeko hobekuntza eta ebaluazio jarduerak kudeaketarekin eta erakundeetako edozein osagai ebaluatzean beharrezkotzat jotako ekintzekin koordinatzen dituen ebaluazio jarraitua egiteko nire proposamena hausnarketa sistematikoan eta planifikatuan oinarritzen da; egungo gizartearen kalitatezko heziketa eskaintzeko garrantzitsuak irizten diren faktoreei buruzko hausnarketa sistematikoan eta planifikatuan, alegia. Ebaluazioak sisteman (eta zentroan) duen kokapen estrategikoa dela eta, egituraren dauden elementu desberdinen eta gertatzen diren ekintzen arteko giltza bihurtzen du. Egoki apli-

katuz gero, hausnarketa funtzionamenduaren ondorioz hobekuntza arloak hautemango dira eta disfuntzioak zuzenduko, edo alderik indartsuenei, erakundeko elementu positiboak, laguntza eta babesa emango zaie.

Proposamen hori praktikan jartzeko, ebaluatzen diren elementu instituzionalak aukeratu dira eta elementu horien funtzionamendu egokia konfiguratu duten adierazleak markatu dira —ahal bada ahalik eta adostasun maila handienarekin—. Ondoren, horietako bakoitzaren zentroan zenbateraino lortu den baloratuko da, zenbateraino garatu den. Hausnarketa horren ondorioz (berriro diot, sistematikoa, adierazleak jarraituz egina) nahi denaren eta lortu denaren arteko aldea agertuko da. Zenbaitetan ez da alderik egongo, zentroan alderdi horrek ongi funtzionatu duela. Horren ondorioz lana egiteko plana sortzen da, zentrorako hobekuntza kudeaketa plana, dagoen kalitatearen eta nahi denaren arteko aldea kentzeko behar diren jarduerak bakarrik islatuko baitira bertan. Plan hori zehatz-mehatz egiten da inolako zailtasunik gabe, erakundearen egoerari buruz taldean egindako lehenbiziko ebaluazioan oinarrituta baitago, eta sistematikoki egituratzen da aurrez markatutako adierazlearen harremanari erantzuten baitie. Laburbilduz, sekuentzia honekin eramaten da proposamena aurrera :

Kalitate adierazlea → Zentroaren errealtatea
→ Adierazlearen eta errealtatearen arteko aldea → Hobekuntza plana

Modu honetara ebaluatuz gero, batetik hori egitearen eraginkortasuna egiaztatzen da eta bestetik, proposatzen den planaren lehentasuna zentroa hobetzea dela bermatzen da. Adierazle egokiak asmatuz gero, lanerako gida jarraitua edukiko da, eta horrek zentroaren antolakuntza lana eta curriculum egitea erraztu egiten ditu eta bertako kalitatearen etengabeko hobekuntza bermatzen du. Praktika hori zentroko ohiko lanaren artean sartuz gero, ez du zailtasun berezirik eta ez da egin behar denari "gehitu" zaion zer-bait. Eguneroko lanean tartekatuta behar da eta hausnarketa eta balorazioa egin. Hau da, egiten denaren kontzientzia izanda jardun behar da, prozesu eta emaitza partzialak ebaluatuz amaierara iritsitakoan lortutako helmugak (aurreko prozesuaren ondorioak beti ere) zein diren jakin ahal izateko.

Proposatzen diren eredu anitzetan ebaluatzen diren faktoreei buruzko azken ohar bat. Egia da gehienetan nahiko modu orokorrean formulatzen direla, baina ebaluazio lana hastean beharrezkoa da ebaluatu behar dena zer den zehaztea eta aipatu ditudan eredu teoriko horietan ia beti bera agertzen da. Baina

³ Azkeneko hau kalitatearen "kudeaketa" korrantearen barruan dagoen programa bat den arren, kontuan izan mugimendu horietan dauden guztiak ebaluazio ereduak direla funtsean; izan ere, zentroetako kalitatearen oinarri diren faktore guztientzako adierazleak formulatzera laburtzen baitute beraien aktuazioa.

⁴ Casanova, M.A. (2004: 200-205 eta 251-259). Hemen bi adibide dauka, oso-osorik garatuak.

gizartea asko aldatu da gure errealtatean eta, bereziki, azken urteetan. Errealtatea aldatu bada, ikasgeletako eta zentroetako errealtatea ere aldatu izango da. Modu egokian tratatu beharreko egoera berriak daude orain, kalitatezko heziketaren alde jarraitu nahi badugu, egunero agertzen diren egoeretara moldatu beharra dago. Kalitatearen faktoreak berriro pentsatzea proposatzen dut, zentro bakoitzaren egoerari eguneroko testuinguruan erantzuna emango dietenak berriro pentsatzea, hain zuen. Ingurua aldatu egiten da, ikasleek ezaugarri zehatzak izaten dituzte eta horrek baldintzatzen du irakasleen lana. Zentroen abiapuntua desberdina izaten da, helmugak baliokidea izan behar duen arren. Horren ondorioz, iristeko bide desberdinak jarri beharra dago, eta, beraz, baita bide horiek aurkitzen edo abiatutakoan doitzen lagunduko duten adierazle desberdinak ere. Ebaluazioa beti izan da garrantzitsua, baina are garrantzitsuagoa da gurea bezala azkar aldatzen ari den gizartean. Hezkuntza ezin da mugitu gabe egon inguruan dena biraka baldin badabil, bestela pertsonak prestatzeko duen zeregin garrantzitsua galdu egingo baitu. Horregatik, hasierako proposamenerako eredu bat dagoen arren, zentroko zuzendaritzak eta irakasleek eguneratu eta euren beharretara eta nahietara moldatu behar dute. fi



Mª Antonia Casanova, Hezkuntza Sustatzeko zuzendaria nagusia (Hezkuntza Saila. Madril).

Aldizkari honetan zentroetako ebaluazioa egiteko modu desberdinak daude, ikuspuntu teoriko eta praktikoko desberdina dutenak, baita ikuspegi desberdina dutenak ere bere ekarpena egiten duen hezkuntza sektorearen arabera. Nire ustez, oso interesgarria litzateke iritzi horiek kontrastatzea, guztiei buruz hausnartzea eta gure posizio pertsonalak gainditzea. Gure zentroentzat ebaluazio eta hezkuntza-kalitate ikuspegi aberastuko baikenuke.

Bibliografia

Barberá, V. (1990): Método para la evaluación de centros. Madril, Escuela Española.

Cano, E. (1998): Evaluación de la calidad educativa. Madril, La Muralla; 2. arg., 1999.

Casanova, M.A. (1992): La evaluación, garantía de calidad para el centro educativo. Zaragoza, Edelvi-
ves.

Casanova, M.A. (1995): Manual de evaluación educativa. Madrid, La Muralla; 8. arg., 2002.

Casanova, M.A. (2004): Evaluación y calidad de centros educativos. Madril, La Muralla.

Castillo, S. (koord.) (2002): Compromisos de la evaluación educativa. Madril, Prentice Hall.

Cea, F. eta beste (1992): V.A.Q. Bartzelona, Barcanova.

Garrido, P. eta beste (1989): Desarrollo analítico y formativo del centro docente. AUDO-G. Bartzelona, Studium.

Isaacs, D. (1977): Cómo evaluar los centros educativos. Pamplona, EUNSA.

López, J.A. eta Darder, P. (1985): Quafe-80. Cuestionario para el análisis del funcionamiento de la escuela. Bartzelona, Onda.

López Rupérez, F. (1997): La gestión de calidad en educación. Madril, La Muralla; 4. arg., 2003.

Mestres, J. (1990): Model d'Indicadors per a l'Avaluació i Gestió de Qualitat de Centres i Districtes. Saporei. Bartzelonako Unibertsitatea. Doktorego tesia.

Rosales, C. (1990): Evaluar es reflexionar sobre la enseñanza. Madril, Narcea; 3. arg., 2000.

Santos Guerra, M.A. (1990): Hacer visible lo cotidiano. Teoría y práctica de la evaluación cualitativa de los centros educativos. Madril, Akal.

NAFARROAKO HEZKUNTZAREN INDIKADORE SISTEMA, 2003.

Antonio Marticorena Valencia, Teknika eta Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuko Zuzendaria Nafarroako Gobernua

Garapenari buruzko galderak neurtu eta definitu beharrak, bizi-mailek, gizarte- eta ekonomia-baldintzek eta gizartearen gain eragina duten beste aspektu batzuk, erakunde nazionalak eta nazioartekoek garatutako programa adierazleak agerpena ekarri zuen hirurogeita hamarreko hamarkadan, dela erakunde publikoen mailan dela erakunde pribatuena mailan. Azken hamarkadan, adierazleak hezkuntza-eremuan ere garatu dira.

Adierazle horien xedea, oro har, errealtateari buruz modu objektiboan informazioa eman eta hori interpretatzea da, bai eta horren ondorioz aldaketa- eta hobekuntza-estrategiak ezartzea ere.

Hezkuntzaren ikuspegitik adierazle bat datu bat da, edo datu-multzoa, objektiboak edo modu objektiboan hartzekoak. Datuok, irakaskuntzaren emaitzak, emaitza horien eskuraketa baldintzatzen duen faktoreen bat, edo, gizarte-beharrizanetara egokitzea balioetsiko dituzte.

Adierazleen multzo mugatua baina esanguratsua hautatzeak, gaur egun "Adierazleen sistema" bezala ezagutzen denak, hezkuntza-sistema batek zein modutan jarduten duen ulertzeko ideia sintetikoa ahalbidetzen du. Adierazleek ez dute azaltzen errealtatean dauden kausazko harremanak, ezta alde bakarreko ondorioak ateratzea uzten ere.

Horren lana errealtatea argitzea da eta hori behar bezala interpretatzeko osagaiak ematea.

Nafarroako Foru Komunitatea, gainerako autonomia-erkidegoekin batera, HSKEIN-rekin dihardu lanean (Hezkuntza Sistemari buruzko Kalitate eta Ebaluazioaren Institutu Nazionala), "Hezkuntzaren adierazleei buruzko Estatuko Sistema"ren ondorengo eta aldizkako (biurtekoa) eraketarako nahitaezkoa den informazioa eman dezan.

2003/04 ikasturtean, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak, eta bereziki Ikuskaritza Zerbitzua ebaluatzeko Arloak, Nafarroako hezkuntzari buruzko adierazleen sistema eratzen eta diseinatzeko hasi zen. Alde batetik, orduan bazeuden sistemekin alderatzea ahalbidetu behar zuen (nazioartekoekin, nazionalekin, eta beste autonomia-erkidegoekin); beste alde batetik, Nafarroako hezkuntza-sistemaren berezitasunak jaso eta informazio publikoa eman behar zion administrazioari nahiz gizarteari, oro har.

Ekimen horren emaitza "NAFARROAKO HEZKUNTZARI BURUZKO ADIERAZLEEN SISTEMA. 2003" dugu, jada amaituta eta laster argitaratuko dena. Nafarroako lehenengo argitaraldi hori, hasiera batean, estatuko sisteman du oinarri. Izan ere, interesgarritzat jotako adierazleak aukeratu dira emandako informazioaren ondorioz, datuen baliagarritasunaren ondorioz, edo alderatzeak egiteko aukeraren ondorioz. Gainera, Nafarroako hezkuntza-sistemaren berezitasunen gain eragina duten beste batzuk ere gehitu dira.

Guztira, gaur egun 30 adierazle aurkezten dira bost multzotan bananduta: 4 adierazle testuinguruari buruz, 6 baliabideei buruz, 9 eskolatzeari buruz, 5 prozesuei buruz eta 6 hezkuntzaren emaitzei buruz.

Sistemaren adierazle guztiek aurkezpen-eskema erkidea dute eta horrek honako hauek jasoko ditu: adierazlearen titulua, esanahia, justifikazioa edo erabilera, taulak eta grafikoak, iruzkin deskribatzaileak,



Lau institutu publikok ISO 9001 kalitate ziurtagiria lortu dute.

zehaztasun teknikoak eta datuak lortzeko iturria. Oro har, eskema hori beste adierazle-sistemetan ezarri da, dela nazionaletan dela nazioartekoetan. Izatez, horrek hezkuntza-sistema ezberdinen alderatze-ikerketak egitea errazten du.

Ekimen hori Nafarroako Hezkuntzari buruzko adierazleen sistemari egindako lehendabiziko hurbilketa da. Gure egunotan, 2004/05 ikasturtean, adierazleei buruzko proiektu baten diseinuari hasiera emanen zaio, burututako lanari jarraitasuna eta aldizkakotasuna eman diezaion, eta irakaskuntzaren kalitatean esku har dezan, Hezkuntza Saileko gainerako ekimen guztiekin batera. Proiektu horren garapenak bideratuko du Nafarroako Hezkuntzari buruzko adierazleen sistema eratu eta argitaratzea.

HEZKUNTZAREN KALITATE-SISTEMEI BURUZKO SUSTAKETA NAFARROAN

Pedro González Felipe, Hezkuntza Plangintza Zerbitzua, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Saila

Zerbitzu publikoen kudeaketan egunean-egunean murgilduta gaudenok badakigu kalitatearen etengabeko hobekuntza eta berori ziurtatzeko prozesuen ikuspegitik lan egiteko erabakia hartzeak dakarren eran-tzukizuna. Une horrek, inolako zalantzarik gabe, erakundearen heldutasuna erakusten du, "etapa iluna" gainditzaren adierazle onena izanik. Izan ere, etapa horretan ez dago hobekuntza-beharraren kontzientziarik eta hiritarren lehentasunak eta eskariak ezin dira interpretatu gure lanaren ebaluazio- eta analisi-mekanismoak ezarrita ez izateagatik. Gainera, ezarritako helburuak ez dira esplizituak, ezta ezagunak ere, edo txarrean ere, ez daude.

Hezkuntza-eremuan, kalitatearen kudeaketa-sistemak ikastetxeen joera hezkuntza-zerbitzu bat ematera bideratuko dute. Zerbitzu hori aukerei eta beharri-zanei erantzutean datza eta hezkuntzak ahaleginak egiten ditu erkidegoko kideak, eta orokorrean, gizarteak horiek aserik izan ditzaten.

Ikastetxeak gaur egun ezagututako "kalitatearen kultura"n barneratzeak ikastetxea errealitate oso eta konplexu gisa ikustea ahalbidetzen du. Errealitate horretan esku hartzen duten osagai guztietatik bakoitza aztertu beharko da, osagaiotan egindako prozesuen kudeaketa egokia, eraginkorra eta eragingarria izan dadin. Kalitatearen kudeaketa-sistemak ikastetxeetan aplikatzearen zuzeneko beste ondorio bat irakasleek parte hartzea izanen da; horrela, ikastetxean dagoen kalitatea honela definitzen ahal da: irakasleen banakako helburuak nahiz helburu kolektiboak Plan estrategikoan deskribatutakoekin bat egiten duten maila.

Hezkuntzan kalitatea eragingarritasunean neurtzen da. Horrez gain, ikasleen errealitatea ahaztu gabe, benetan lortu nahi dena ikasleak zer ikasi duen definitzea izanen da. Beste alde batetik, kalitateak kontuan hartu behar ditu hezkuntza-akzioari eratzikitako helburuak, helburuak ikasketa-diseinu eta -edukietan isla daitezen. Kalitatea hezkuntzaren kudeaketan aplikatzean aintzat hartu behar den hirugarren esparruak enfasia jartzen du aipatu helburuak eskuratze-ko baliabideetan (errekurtsoetan eta instalazioetan). Azkenik, kalitatearen kudeaketa-sistemek informazio garrantzitsua ematen dute eragingarritasunarekin, helburuekin, eta baliabideekin zerikusia duen guztia bide egokia daramala egiaztatzeke; baina, aurkako kasua gertatuz gero, ikastetxe bakoitzean hasitako prozesua berriro bideratzeko mekanismo zuzentzaileak definitzen ditu.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak kalitatearen gain egindako apustu eztabaida ezina egin eta berori nortasun-ezaugarrietatik batean bihurtzeko hartu duen erabakiak forma hartu du "Ikastetxe- eta hezkuntza-zerbitzuaren kalitatearen kudeaketa-sistemak hedatzeko programa" sortu eta garatzearen bitartez. Programa horien oinarri dira azken urteotan gure komunitateko bigarren Hezkuntzako Ikastetxe ezberdinak burutako kalitateari buruzko esperientziak eta proiektuak. Lau sare handitan bananduta daude, kalitate-eskemen bidez kudeaketan izandako parte-hartze maila eta aurrerakuntzaren arabera.

Gure komunitateko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan kalitatearen kudeaketa-sistemaren aplikazio-prozesua oso garatuta izan arren, aitortu beharra dago Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan, ordea, esperientzia hasiberriak daudela kalitatearen, ebaluazioaren eta etengabeko prozesuaren dinamikari. Testuinguru horretan, azpimarra-tzekoa da Teknika eta Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuak aldarrikatutako "uztailaren 19ko 385/2002 FORU AGINDUA, Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetarako kalitate eta ebaluazio-plana onesten duena", bai eta Zerbitzu horrek eta antzinako HKINk Lehen Hezkuntzako ikasleei egin berri dizkien kanpo izaerako ebaluazioek ahalbidetu dutela hobekuntza-lerro batzuk argi eta garbi zehaztea. Hortaz, horrek bidea ireki du Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak neurketaren, ebaluazioaren, datuak aztertu eta

datuok Ikastetxe eta Hezkuntza Komunitatearentzat informazio garrantzi-tsuari bihurtzearen kulturen pizkanaka barneratzea.

Aurrekari guzti horiekin, "Ikastetxe eta Hezkuntza-zerbitzuaren Kalitatearen Kudeaketa-sistemak hedatzeko Programa"n apustu garrantzitsua egin du kalitatearen kudeaketa-programak Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetara zabaltzeko. Horretarako, 2004/05 ikasturte horretan sare esperimental bat sortu da ikastetxe horietarako bakarrik, burututako lanaren balioa etapa horietan kalitatezko hezkuntzaren arabera jartzeko esperientziak sortzeko xedearekin, eta, gure komunitateko ikastetxeetara epe labur samar batean apurka-apurka hedatzeko asmoz.

Amaitzeko, azpimarratuko nuke, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak programa horrekin, lehen tokian, buruzagitza bereganatu nahi duela kalitatearen kudeaketa-sistemaren aplikazioan sakontzeko. Buruzagitza horrek kalitate-sistemak irakasleek euren hezkuntza-eginkizuna hobeto egiten laguntzeko lanabes gisa aurkeztu ditu, bai eta antolaketa hobetzeko tresna eragingarri gisa, eta, gure komunitatean Hezkuntza Sistema hobetzeko euskarri eragingarri gisa ere.

KALITATEA GIZARTE KOHESIORAKO ELEMENTU GISA: SOZIALIZAZIOA

Isabel Valdelomar, "Plaza la Cruz" BHIko orientatzailea

Hezkuntzan gertatu diren aldaketa guztien helburua aurreko egoera hobetzea zen, hezkuntza sistemako alderdiak gizartearen eskakizun berrietara doitzeko hezkuntzak duen funtzio soziala dela eta. Gaur egun dagoen etengabeko kezka hori hezkuntzako kalitatea aurkitzera bideratuta dago. Kontzeptu hori ekonomia eta enpresa mundutik ateratzen den arren, potentzial interesgarria du bere baitan eta gure hezkuntza mundu maite hau aberastu egingo du ikuspuntu eta ikuspegi berriekin.

Nire azalpen labur honetan alderdi horietako batzuk garatuko ditut, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkit egungo une sozial honetarako. Hezkuntzak, beharrezko zerbitzua izaki, alderdi horiek bere egin beharra dauka moldatzeko eta bereak dituen helburuak lortzeko.

Kontuan izan behar dugu hezkuntza formala inmersio kultural bidezko trebakuntza dela, denbora eta espazioko koordinatuta batzuen bidez egiten dena —eskola erakundea eta hezkuntza sistema— eta profesionalen jarduerak garrantzitsua eskatzen duela kiderik gazteenak lehiakor bihurtzeko gero gizarte sozial eta sozializatzailea betetzen du norbanakoa treba-tzearekin batera.

Helburu hori betetzeko ikaskuntza prozesu luzea dago, curriculum jakin bat ikasi beharra daukate.

Curriculum hori ikasturteetan eta etapetan banatzen da eta bertako protagonista nagusiak ikasleak eta irakasleak izaten dira. Epe luze horren arrakasta edo porrota ikasleen emaitzetan islatzen da, aurre egin beharreko hainbat handicap –probak eta azterketak– gainditzen dituzten edo ez dituzten heinean.

Gaur egun garrantzia duen inflexio-puntuetako bat da hezkuntza-prozesuak ez direla ikaslearen kontu hutsak, baizik eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak izaki, ikasleen eta irakasleen kontua direla. Horrez gain, testuinguru batean garatzen dira, zentro jakin batean eta Administrazio baten parametro arautzaileen pean; horiek guztiek kontuan izan beharreko aldagaiak osatzen dituzte, maila horietako bakoitzaren jarduerak eragina baitu arrakastan edo porrotean, ikasleen emaitzetan. Horrela, bada, irakaskuntzari dagokion prozesuaren barrutia (adiera sistematikoenean hartuta) erantzukizunaren lehenbiziko ilaran jartzen da.

Horri esker, garrantzi berezia eman zaio prozesuak aztertzeari edo ebaluatzeari, emaitzak bakarrik ebaluatu ordez; izan ere, prozesuen bidez hobetuko dira emaitzak –kausalitatez eta ez kasualitatez-. Eragin-kortasunari buruzko hipotesi indartsu bat egin dezakegu, beraz: irakaskuntza prozesuei buruz hausnartzen den heinean eta ikasleari bere ikaskuntza prozesuari buruz hausnartzen laguntzen zaion heinean hobetuko dira emaitzak. Nola irakaskuntza hala ikaskuntza pixkanaka kontziente bihurtzea da kontua, gogoan izanda ikasleen emaitzak direla hezkuntza sistemako agente desberdinen funtzionamendu egoikiaren edo desegokiaren funtsezko adierazleak.

Honaino, eta oso labur, hezkuntzako etengabeko hobekuntza praktikara eramateko lanean ari diren kalitatearen zehaztapen edo eredu desberdinen ikuspegi teoriko edukatiboa.

Baina egungo une soziala bereziki konplexua da eta hezkuntza teoriaren aplikazio lineala zaildu dezake momentuz: populazioa gero eta anitzagoa izateaz ari naiz, eta eskolako mikro-gizartean, ikasleak gero eta anitzagoak izateaz.

Hezkuntza Administrazioarentzako, eskola erakundearentzako eta, batez ere, gelan irakasleentzako, dagoen erronka nagusietakoa "aniztasunaren arreta" deiturikoa da. Irakasleak ez du batezbesteko ikasle idealik aurrean, baizik eta ikasle desberdin talde bat, batzuetan oso desberdinak gainera eskolan nahitaez ikasi beharrekoekin; izan ere, bakoitzak bere gaitasunak ditu, bere lehiakortasuna, gizarteko jatorria, jatorri kulturala, interesak, ikastera behartuta dagoen hura ikasteko motibazioak, nortasunaren ezaugarriak... Banako ikasleak dira taldeko sisteman, eta talde horrek bakoitzaren banakotasuna gehitzetik haratago dauden ezaugarriak eta dinamikak ditu.

Egoera hori ez da batere erraza irakaslearentzat, eta lankidetzaren beharrezkoa da sistemako maila eta agente guztietan baitu, hala izan beharko behintzat, eragina. Hezkuntza Administrazioa da lan hori errazteko lehenbiziko erantzukizuna duena; horretarako, zentroei babes handia eskaintzen dien hezkuntza politikak egin behar ditu lehenbizi, horri esker aniztasunaren trataera gizarteko errealtatetzat onartua izan dadin eta, horren ondorioz, baita trebakuntzarako alor garrantzitsutzat ere. Gero, zentroak Administrazioaren laguntza eta babesa ikusi ondoren, bertako aniztasunaren trataerarako plana egin beharko du antolakuntzarako neurri malguak inplementatuta eta curriculum moldatuta; horrez gain, elkarbizitzan eta elkarbizitzarako hezteko berariazko programak egingo ditu balio demokratikoak eta integratzaileak sustatuta gero eta pluralagoa den gizartean irakasle taldeek eta irakasleak gelan zentroaren helburu etikoak sar ditzaten euren programazioetan. Irakaskuntza anitza eskainiko da ahal den neurrian. pixkanaka eta kontzienteki hausnartua eta argumentatua izango denez.


Ikasle guztiak pertsonalki eta sozialki trebatzeko hezkuntza-helburu guztiak bete daitezten aniztasuna nola tratatu heziketa-erronka denez praktikan, nire ustez hezkuntza-prozesuen azterketari aplikatu behar zaizkio kalitatea hobetzeko hausnarketa eta ebaluazioa aniztasunak berekin dituen alderdi guztiak oso kontuan izanda; izan ere, horrek eduki akademikoetan eragina izateaz gain, jokaeren ikaskuntzan ere badu, eta ez da ikasle gutxi batzuei arreta egitea kontuan izan behar, baizik eta horien guztien hezkuntza integrala eta integratzailea.

Horretarako, garrantzitsua da ikuspuntu berrian eraginkortzat hartu den faktoreetako batean jartzea arreta, emaitzak lortzeko: "gizarte kohesioko giroa" sortzea. Faktore horrek hainbat alderdiri egiten die erreferentzia: harreman pertsonalak zaintzeari, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsonen arteko kontsiderazioari, konfiantzari eta errespetuari. Hori lortu behar da gauza guztietan eta sistemako maila guztietan –Administrazioan, zentroan, familietan– ikasgelara iritsi arte, gune horretan baitira harremanak zuzenagoak, egunerokoak, ikaskuntza eta irakaskuntzakoak.

Planifikazio eta programazio didaktikoak egitean gutxitan ikusten da kontzienteki eraikitako giro positiboa; alde batera gelditzen da hori, irakaskuntza jardueraren gehigarri gisa. Eta irakasleen lana interakzio pertsonal afektiboak eta emozionalak dituen komunikazio ekintza denez funtsean, irakasleak hori kontziente egitea, duen eragin ukaezinaz hausnartuta, eta bere zeregin profesionalean eta gelako praktikan sartzea oso positiboa eta hezigarria izango da, ikasleek egungo gizartean elkarbizitzeko behar dutena ikas dezaten.

Giro sozial positiboa eta integratzailea eraikitzeko

Giro sozial positiboa eta integratzailea eraikitzeo inbertitzeak balioko du nola ezagutza arlo jakin batzuetako ikaskuntzan aurrera egiteko (ikaskuntza oro afektibitatez beteta dagoelako) hala elkarbizitzarako eta gizarte kohesiorako baloreen hezkuntza sustatzeko. Kontuan izan gizarteak hori behar duela eta gero eta gehiagotan eskatzen diola eskolari, eta helburu horiek egiazko zentzua ematen die denok nahi dugun hezkuntza-kalitateari.



Iturria: Pedagogia koadernoak

KALITATEA EKITATE PRINTZIPIOTIK

Juan Vicente Ansa Erice, Pedagogia Terapeutikoko irakaslea

Gaur egun "kalitate" hitzak normalizazioa, uniformetasuna, "ISOak", produktua, jatorri izendapena, trazabilitatea, enpresa, hoztasuna... ekartzen dizkigu gogora. "Ekitateak", berriz, iradokitzen ditu justiziarren aplikazio zorrotza gainditzea; gutxietsitakoen aldeko diskriminazio positiboa; etikari, sentimenduei, berotasunari... egindako deia; desberdinak desberdin tratatzea... Nire ibilbide profesionala dela-eta (minusbaliotasunaren mundua ardatz duena), berotasunetik hurbilago sentitzen naiz kalitatetik baino. Hala ere, kalitatea-eraginkortasuna hobetzeko dinamiketan buru-belarri sartzeko irakasle guztiek jasaten duten presioa ezin dut saihestu.

Enpresa pribatuak produktuen kalitatearen edo/eta bezeroak asebetetzearen azterketa gainditzeko saiatzen dira eskabideen zorroan edo/eta balantzeetan. Azterketa horren emaitzen baitan egoten da enpresaren biziraupena. Zuzenean edo zeharka diru publikotik bizi garenoi aurpegiatzen zaiguna da ez gaudela "kalitate kontrolen/ebaluazioen" mende. Administrazio batzuek zerbitzu publikoetako erabiltzaileek hautatzeko (sendagilea, ikastetxea, erresidentzia...) duten aukera zabaltzeko saiok egin dituzten arren, zerbitzu horien funtzionamendua demokratikoki kontrolatuta bakarrik berma daitekeela dirudi horien kalitatea.

Transformazio enpresa batek kalitatezko estrategia osoa planteatzeaz: hasi lehengaia erostetik, produktua egin eta merkatuan produktu hori sartzera artekoa. Salmentek eta prozesuaren hobekuntzak

zehaztuko dute horren errentagarritasun/bideragarritasun ekonomikoa.

Egungo hezkuntza legeek ez dute laguntzen ikaslea / "lehen gaia" aukeratzeko duten zentroak egoten. Baina merkatuko legeek (ikastetxearen kokapena, etxebizitzaren balioa, inguruko enplegu ezaugarriak...), familien lehentasun ideologikoen (erlijiosoen, linguistikoen, gizarte prestigioaren...) eta eskolak eraikitzeo dagoen hezkuntza planifikazioak zentro bakoitza bere tokian jartzen du, sisteman duten txokoa beteta gelditzen delarik horrela. Zentro bakoitzak (agian egokiagoa litzateke zentroko profesional taldeak esatea) bere hezkuntza proiektua (izaera) definitzen du kontuan izan gabe zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ez direla homogeneoak eta ezin direla sailkatu neurriaren, altueraren, adinaren, sexuaren, etniaren, hizkuntzaren, minusbaliotasunaren, erlijioaren... arabera. Foru Komunitatean ikasleek etiketazio diagnostiko / soziologiko / etnografikoak adierazten digu dibertsitatea dela ohikoa, baina ez du irtenbide eraginkor / ekonomikorik ematen. Zentro guztietan daude gutxiengoak. Zentroaren "izaerarekin" bat ez datozen gutxiengoak. Zentroko kontrol demokratikoko mekanismoek huts egiten dutenean gutxiengo horiek gehiengo izaten dira zenbaitetan (eskandaluzko gutxiengoak eta isilduak, baina ez isilak entzun nahi dutenentzat).

Ikastetxeek, muntaiako kateek bezala, uniformetasunerako joera dute, ISSOrako joera. Lanbidearen ajeengatik gutxiengoaren tokian jartzeko joera dugunon nahia da AENOR / ISSO... arauak kontuan hartzea gehiengo-gutxiengoak. Ez dugu nahi irakasle "normalek" ikasle "desberdinen" hezkuntza adituaren esku uztea (askotan "derrigortutako adituak" izaten dira, eta espezialitate horretarako plaza lortzeko merituen lehiaketan ez litzukete irakasle "normalak" gaudituko trebakuntzari, titulazioari eta antzintzasunari dagokionez). Nahi duguna da gure ikasgeletan normala desberdina dela onartzea, ikaslearen estandarizazioa dela normala onartzea, gizarteak normalizazioaren gastu ekonomikoa segregazioaren gastu soziala baino hobeto onartzea nahi dugu.

Orain praktikan hezkuntza unibertsala denez, eskolatze helburu kuantitatiboak lortu direnez, berdintasuneko eskakizunak modatik kanpo daudela dirudi eta kalitateari begiratzeko garaia iritsi da. Ahaleginaren eta bikaintasunaren kulturaren garaia heldu dela dirudi, ikaskuntza prozesu homogeno eta arrakastatsuen protokolizatzea, ikaslearen porrotaren aurrean koartada bezala eta gure geletako ageriko desberdintasunak ez ikusteko iragazki bezala erabiliko duguna. Desberdintasuna ezaxola izatea "dibertsitatearen arretan adituak" egotearekin konbinatuz gero, gela barruan uniformetasun basatia ekar dezake.

Irakasleak eta irakasle ez direnak, ohituta gaude hezkuntza zentroen kalitatea sailkatzerakoan estatistiketan oinarritzen: selektibitateko batez besteko notak, praktiken ondoren enpresetan jarraitu dute

notak, praktiken ondoren enpresetan jarraitu duten ehunekoa... azken produktuan oinarritzen gara. Baina heziketa bezalako prozesu luze eta konplexuetan gurasoek gure seme-alaben etorkizunerako egiten dugun proiektuaren edo seme-alabek beraien etorkizunerako egiten dutenaren eta lorpen mailaren arteko harremana da kalitatearen adierazle argia; hau da, gure erabiltzaileen/bezeroen satisfazio maila, eta profesionalok hori hartu beharko genuke kontuan. Eta etorkizuneko proiektu hori oso desberdina izan daiteke familia desberdinentzat edo familia bereko haur desberdinentzat.

Enpresa pribatua kudeatzeko eta ebaluatzeko jarraitbideak hartu behar eta ahal ditugu, baina partehartze demokratikoan sakondu beharra daukagu, eta ez eskola kontseiluetan bakarrik, baizik eta familiei eta haurrei entzunda, beraien etorkizuna diseinatzerakoan protagonismoa emanda, elkarrizketarako jarrera izanda beti.

Gure zentroetan kalitatea hobetzeko prozesuak sustatu beharra dago, baina ekitatetik, desberdintasunaren aurrean sentikorrak izanda, elkarrizketatik, partehartze demokratikotik, "goxotasunetik".

KALITATEA ... ZER NOLAKO KALITATEA?

Fernando Carbajo, Filosofiako Katedratikoa eta "Felix Urabayan" I.E.S. N.A.P.Ako irakaslea.

Ikastetxeetan dauden kalitatezko ereduak ezartzeari buruz dudan iritzia, irakaslea naizen aldetik, bi ideietan laburbiltzen ahal da: 1) eredu horiek ebaluazio-espirtua sustatzen dute eta hori gauza ona da; 2) eredu horiek ez dute kontuan hartzen hezkuntzaren funtsa, eta horren ondorioz, horiek aipatzen duten kalitatea ez dagokio benetan hezkuntzaren kalitateari.

Irakasle gisa lanean hasi nintzenetik entzun izan dut kalitatezko hezkuntzari eta kalitatezko irakaskuntzari buruz hitz egiten. Egia esan, orain dela urte batzuk arte "Kalitatea" hitzak talisman zentzua izan zuen eta berori erabiltzen zen soldaten igoera eskatzeko, gure laneko egoera hobetzeko, gela bakoitzeko ikasleek kopurua jaisteko edo irakaslearen eskola-orduak gutxitzeko. Orain, aldiz, desberdina da testuingurua. Enpresa-esparruan ekoizpen-prozesuen kalitatea zehaztu eta hobekuntzak planifikatzeko prozedurak zehazteko dagoen beharra dela eta, kalitatea ziurtatu edo egiaztatzeako sistemak edo ebaluazioaren inguruko eredu berriak ezartzera bultzatu du. Ondoren, eskola-esparrura lekualdatu dira.

Ba al du zentzurik eredu horiek ikastetxeetan aplikatzeak? Zein neurritaraino da ikastetxe bat enpresa batekin parekatzeak modukoa? Kalitatezko eredu baten aplikazioak benetan hobetzen ditu ikastetxean izandako emaitzak? Ziurtagiri bat lortzeak berma-

tzen al du kalitatezko hezkuntza ikastetxean? Galdera horiei erantzuteko aintzat hartzekoa da datu esanguratsu bat: kalitatezko ereduak ziurtzat jotzen dute prozesuen hobekuntzak emaitzen hobekuntza dakarrela. Hori horrela, esaterako, ez da berdina zerbitzu-industria edo zerbitzu-enpresa. Kasu batean, emaitzen kalitatea ekoizpen-prozesuen mende egonen da oinarrian. Beste kasuan, ordea, teknikaz gain kontuan hartu behar dira ukiezinak diren beste faktore batzuk, eta horien zenbaketa zailagoa da, bai eta neurketa ere: bezeroekin dituen harreman pertsonalak, laneko giroa, langileek ekimenerako duten gaitasuna, beraien sormena, enpresako helburuetan duten parte-hartzea, jendeak enpresaren markan duen konfiantza, marketing-aren ondorea...

Irakaskuntzak osagai teknikoa du zalantzarik gabe, baina emaitza (hezkuntza) ez dago hasiera batean eta funtsean horren mende. Lehenengo tokian familiako hezkuntza dugu: ikasleak ikastetxera nola iristen diren eta gurasoak zein eratan parte hartzen duten irakasleekin. Ondoren, kontuan hartu behar dira ikastetxeko baldintzak, batez ere, hezkuntza-eta ikasketa-proiektu ona izanez gero eskolako bizitza benetan gidatzen duenean, hau da, irakasleek proiektuan parte hartzea. Hala ere, ezin dira ahaztu kanpoko eragileak, esaterako, bere inguru sozioekonomikoa. Arraroa gerta al daiteke irakasle askok modu eszeptikoan ikustea gure ikastetxeetan kalitatezko ereduak aplikatzean ez direla ereduok egokitzen gure enpresako baldintzetara eta bere konplexutasunera?

Enpresa gutxitan dago ikastetxeetan jarduerari buruz dagoen halako arauketa zehatzik; antolaketa-rena, ikasleak onartzeko prozesuarena, bakoitzak duen eskumenaren arabera erabakiak hartzeko-rena, organo bakoitzaren gutxieneko bilera kopurua-rena, irakaskuntzaren eduki eta prozesuena: araututa ditugu IHP, IIP, KAP, TAP, HOP, BEE, sailletako didaktika-programazioak, memoriak... Guzti hori benetan kontuan hartuz gero, plangintza- eta programazio-tresnak izapide burokratikoetara urritu ez eta gure hezkuntza-akzioa hobetzeko baliabide erabilgarri gisa bereganatzen baditugu, beharrezkoak izanen lirarteke hobekuntza-taldeak? Behar bestekoa izanen lirarteke, gure antolaketaz gain, hezkuntza-administrazioako organoak, eta bereziki Teknika eta Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzua?

Beldur naiz, prozesuen gain horrenbeste jardunez gero funtsezkoa galduko ote den. Irakasleak orriak betetzen nazkatuta bukatzeaz gain -bilerak ebaluatzea, adib. baliabide hutsa diren bilerak- helburuak galtzea saihestu behar da: behar bezala irakastea, ikasleek ikastea, eta batez ere, gurasoekin hezkuntzan elkarrekin lanean aritzea. Irudipenezko delitugileen prestakuntza-zentro batek kalitatearen ziurtagiria lortzen ahal du, berari dagokion jardunbide egoia eta emandako irakaskuntzen arrakastari dagokionez. Nork eta nola neurtzen ditu helburuak- "hezkuntza" prozesua? Bezeroaren asetasuna ez omen

da aski. Inkesten arabera, herri honetako ikasleen gurasoak aserik daude hezkuntza-sistematik. Hala ere, irakasleok kexak ditugu sistemaren, gurasoen eta ikasleen inguruan. Nola neur daiteke modu objektiboan batzuen eta besteen ikuspegi subjektiboa?

Dudarik gabe, kalitatezko eredu horien ezarpena dela medio, inertziak ezabatu eta ikastetxeetan hobekuntzaren kultura iraunkorra sortzea laguntzen du. Horri dagokionez, bereziki onura argi bat azpimarratuko nuke: ikastetxearen, gobernuko organoen eta parte-hartzearen jardunbidea ebaluatzeko kontzientzia biztu izana. Nahiz eta hori garrantzitsua izan, ez da oinarritzkoa; arazoaren muina, nire ustez, "hezkuntzaren kalitatea" definitzean datza, hau da, "hezkuntza"ren esanahia ematea, eta ondorioz hauek argitzea: "ikaslearen nortasuna guztiz gartztea" (Indarreko LOGSEren 1.1. artikulua) eta "banakako prestakuntza, horrek hezkuntza osoa ematen lagunduz ezagutzetan, trebetasunetan eta balore moraletan bizitzeko eremu guztietan, dela norberarenean, familiakoan, gizartean eta lanean (Indarreko LOGSEren 2.3. artikulua).

Izan ere, hezkuntza-administrazioak ez ditu zehazten zer nolako balore moralei buruz mintzatzen garen, eta gizartean ez dago adostasunik. Hori da, nire ikuspegitik, ikastetxeren batean ezarri nahi den kalitatezko edozein ereduren oinarritzko mugapena.



Iturria: Pedagogia koademoak

ZER DA KALITATEA GURASOENTZAT?

Herrikoa Federazio Batzordea

Derrigorrezko eta doako hezkuntza lortzea oso modu positiboan baloratzen dugun lorpen bat da. Derrigorrezko hezkuntza eta doakoa, bai, baina ez edonolakoa. Hezkuntza eskubidea babestea kalitateko hezkuntza babestea da.

Kalitateko eskolak guztion Hezkuntza eskubidea bermatzeko instrumentu bat izan behar du, ezberdintasunei aurre egin eta aukera berdintasuna ahalbideatzeko. Aukera berdintasun horrekin ekonomia

eta gizarte mailako oztopoak saihestuko dira ahalmenari eta talentuari bide emateko. Eskubideak eta betebeharrak berdinak izango dira guztiontzat, berdintasun eskubidea gero eta handiagoa den aukera berdintasun eragingarriaren bitartez gauzatzeko.

Kalitate adierazleak ez dira eraikin baten metro koadroen arabera bakarrik neurtzen, are gutxiago igerilekua edo luxuzko zerbitzuak izateagatik. Espazioen funtzioaren arabera ere neurtzen dira, tutoreek egindako lanarengatik, ingurura egokitzeko duten gaitasunarengatik, Hezkuntza Komunitate osoak duen parte-hartzearengatik eta eskolan irakasleen Mintegiak pedagogia berri eta esperimendatzeko duen gaitasunarengatik. Betiere, Mintegi horrek Hezkuntza Eskubidetza hartzen duela kontuan hartuta.

Beraz, landu eta lortu behar dugun erronka da Eskola publikoa Eskola zientifiko eta humanistiko bihurtzeko lanean ahalegin eta baliabide mugarik ez jartzea. Eskola horrek aukera berdintasunaren alde egin behar du, herritarrak gizarte demokrata aurreratu baterako hezi behar ditu, doakoa izan behar du eta Estatuak edo Autonomietako Gobernuak finantzatu behar dute. Bazterketa ororen aurkakoa, eskola Komunitateak kudeatua, inguruko komunitateari irekia eta ikasleen gaitasun intelektual eta moral guztiak martxan jarriko dituen praktika pedagogikoaren bitartez gizakien pertsonalitate integrala lortzera bideratua. Horiek dira eraiki nahi dugun eskolaren ezaugarriak.

Gurasoentzat, parte-hartzea, parte-hartzean oinarrituriko enplegu metodologiak erabiltzea, kudeaketa demokratikoa, gizarteratzea, ingurura zabaltzea eta bizitarako prestatzea kalitateko adierazleak dira. Beharrezkoa dirudi ezaugarri horiek iruzkindu eta eguneratzea, lortu nahi dugun Eskola eredu gauzatzen hasteko eta gurasook argi jakin dezagun zer defendatzen dugun eta zergatik.

HEZKUNTZAKO KALITATEARI BURUZKO HAUSNARKETAK

Nafarroako CONCAPA.

Politika eta hezkuntza munduan asko hitz egin eta eztabaidatu da azkenaldian hezkuntzaren kalitateari buruz; batez ere, Nazioko Gobernuak joan den legegaldian hezkuntza sisteman abian jarritako "Hezkuntzaren kalitateari buruzko legea" izeneko erreformaren ondoren.

Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzen eta hobetzen ari ziren prozesuan bete-betean harrapatu du ekimen legegileak hezkuntza zentro asko. Horren ondorioz, nahasmena sortu da, gure ustez, irakasle eta gurasoen artean.

Bi gaiak desberdinak diren arren, osagarriak dira. Kalitate sistemak ezartzeari esker hezkuntza siste-

Kalitate sistemak ezartzeari esker hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetuko baita, baina ez ditu hezkuntza sisteman LOGSE ezarri ondoren agertutako arazoak konpontzen, noski.

LOGSE ezartzearen ondorioz pobretu egin dira ikasleek eskuratutako ezagutzak, eta antolaketa eta akademia mailako zailtasunak daude, batez ere, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH).

Bada aitortu beharreko puntu bat ere; Espainian ez dago hezkuntzaren kalitatea homologatzeko inolako sistemarik, ezta Europako beste hezkuntza sistemeekin alderatzeko ere.

Kalitatearen Legea gelditzearen ondorioz, gai horien irtenbideak alde batera gelditu dira, nahiz eta gure ustez funtsezkoak izan, eta hala adierazi genuen Kalitatearen Legearen izapidetzan.

Baina gure erakundeak hezkuntza kalitatea esaten dugunean zer esaten ari gara egiaz?

Gure ustez, hezkuntza sistemaren kalitatearen baitan funtsezko zenbait alderdi daude, hala nola:

1. Ikasleek, ahal duten neurrian, ahalik eta trebakuntza handiena berenganatzea, bakoitzaren garapen kulturala, pertsonala, soziala eta profesionala erantzukizunez hasi ahal izateko.

2. Gurasoek seme-alaben heziketan parte hartzea, gure seme-alaben prestakuntzan heziketa zentroekin elkarlanean aritzeko dugun eginbeharra beteta.

3. Zentroen antolakuntza hobetzea, barne funtzionamendua argi finkatu ahal izateko, baita parte hartzen duten sektore guztien kompetentziak eta erantzukizunak ere: zuzendaritzarenak, irakasleenak, gurasoenak eta ikasleenak.

4. Ikasle guztiei beharrezko ahalegin eta etekin akademikoa eskatzea eta prestakuntzan zailtasun nabarmenak dituztenei laguntzea eta sustatzea.

5. Gure titulazioak Europako besteekin homologatzea.

Laburbilduz, eskatzen dugun bakarra da gure seme-alabek ahalik eta heziketarik onena jaso dezatela, heziketa hori Europako beste herrialdeetakoekin parekagarria izan dadila, eta gizarteak, familiak eta hezkuntza sistemak ikasleei saiatzeko eska diezaiztela. Izan ere, saiatauta bakarrik lortuko dute gero eta gogorragoa eta lehiakorragoa den gizarte honetako erronka pertsonalak eta profesionalak gainditzeko behar duten prestakuntza.

Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatutako Hezkuntza Sistemako Kalitateri buruzko Jardunaldietan adierazi genuen bezala, ez dadila izan gure antolakuntza kudeaketako ziurtagiria lor-tzeko lasterketa

hutsa. Gure hezkuntza sistemaren erreformari, hobekuntzari eta eraginkortasunari seriotasunez heldu behar diegu hezkuntzako sektore guztien beharrezko adostasunaren bidez.



Gurasoen batzarra.

HAUXE DA BEHAR DUGUN KALITATEA.

Kristina Andres Gil, Sortzen-Ikasbatuaz Koordinatzailea.

Azken urte hauetan kalitatezko hezkuntzaz asko mintzatu da. Edozein sistemak, sareak eta eskolak "kalitatea" du buruan. Aurrematrikulazio garaian denek kalitatezko hezkuntza eskaintzen dute.

Sortzen-Ikasbatuaz honi buruz hausnarketa sakona egin du eta ondoren gure ikuspuntua eta iritzia azaltzen saiatuko gara.

Gurasook erosketak egiterakoan bezala, gure seme-alabeentzat "onena" eta "egokiena" nahi dugu.

Kalitatea aukera berdintasunean eta balio aurrerakoietan hezten oinarrituko den hezkuntza izango litzateke.

Beraz, hezkuntza hezkidetzaileri deitzen diogu, non neska-mutilen arteko ezberdintasunak onartuz, estereotipoak gaindituko dituen.

Kalitatea hezkuntza anitzari, integratzaileari eta konpentsatzaileari ere deitzen diogu. Norberaren originaltasun eta indibidualtasuna sustatu, auto-ezagutza bultzatuz, bakoitza nor izanez, bere buruarekin zuhur jokatzuz, aukerak eginez eta erabakiak hartuz bizitzeko gai izan dadin. Hala pertsona aske, kritikoki eta autonomoa izatea bultzatuko da, inolako diskriminaziorik gabeko harreman markoa sortuz. Hezkuntza behar berezien aurrean jokaera baikor eta osagarriak bultzatuz bere ahalmen guztiak gara-tzeko bideak eskainiko ditu. Gure kultura eta tradizioaren balore, sinesmen eta jokaerak ezagutu, kritikoki baloratu, gero pertsona bezala norberaren garapena ondoen ziurtatuko dutenak aukeratu ahal izateko. Kalitatea hezkuntza eta pedagogi arloan arreta bere-

Kalitatea hezkuntza eta pedagogi arloan arreta berezia eskaintzea ere bada. Horrela, ikasketa-prozesu eta eritmo ezberdinak bideratu ahal izateko behar diren baliabideak eskaini beharko ditu eskolak. Eten-gabeko formazio-prozesuan oinarrituko da. Erronka berriei eta egoera desberdinei aurre egiteko malgutasunez jokatzeko gai izaten laguntzea. Ikasle bakoitzaren garapenari egokitzea, pertsona bezala bere osotasunean tratatuz. Ikasi eta irakasteko motibazioa bultzatzea. Irakasle eta ikaslearen arteko errespetu eta konfidantza harremana bultzatzea. Teknologi berrien erabilera egokian hezteko. Ikasten ikasteko tresnak erabiltzea. Komunitateko kide guztien parte hartzen bilatzea. Edukiak, prozedurak, balore berritzaileak irakastea. Hori da guretzat kalitatezko hezkuntza.

Kalitatea eleaniztasuna bultzatzeari ere dei egiten diogu. Euskalduntasunean oinarrituz eleaniztasuna bermatzen duen eskola, hizkuntza bakoitzean lortu nahi den maila definituz eta plangintza orokor eta sendoak eginez.

Kalitatezko hezkuntza lortzeko ikastetxe bakoitzak bere egoeretatik abiatuz hezkuntza proiektuak garatzeko autonomian oinarritu beharko du.

Beraz, ezarrita dagoen Kalitatezko Legearen aurka agertu gara maiz, lege horrek uniformizatzea eta memoria hutsean oinarritutako jakintza besterik bilatzen ez baitu.

KALITEA KUDEATZEKO EREDUAK HEZKUNTZA SISTEMAREN ZERBITZURA

Alberto Arriazu, "Navarro Villoslada" BHIko irakaslea

Gaur egun gure inguruan gehien zabalduak diren ereduak honakoak dira: ISO 9000:2000 arauen familia eta bikaintasunaren EFQM Eredua.

Erakunde pribatu eta publikoetako produkzio eta zerbitzu arloen erreferentzia dira eredu horiek. Kalitatea kudeatzeko hezkuntza zentroei gehien lagun diezaieketen bi ereduak dira. Bi ereduaren ezaugarriak deskribatuko ditut ondoren.

• ISO 9000:2000 arauak.

Nazioartean aintzatespen handia duen arau multzoa da. Mota eta neurri guztietako erakundeek kalitatezko sistema eraginkorrak ezartzen eta mantentzen laguntzeko sortu zen. ISO 9001 arauak kalitatea kudeatzeko sistementzat behar diren baldintzak zehazten ditu. Bezeroak eskatutako baldintzak eta arauzko baldintza aplikagarriak betetzen dituzten produktuak edo zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna duela erakutsi beharra daukan erakunde orok aplikatzeko sistema horiek, erakundearen helburua bezeroa asebetetzea dela kontuan izanda.

Kudeaketarako zortzi printzipio identifikatzen ditu:

1. Bezeroa fokatu
2. Gidaritza
3. Langileen partehartzea
4. Prozesuetan oinarritutako ikuspuntua
5. Sistema kudeaketarako fokatu
6. Hobekuntza jarraitua
7. Erabakiak hartzeko ekintzetan oinarritutako ikuspegia
8. Hornitzailearekin biontzat onak izango diren harremanak

Laburbiduz, ISO 9001:2000 araua kalitatea ziurtatzeko sistema bat da eta prozesuen kontrolean oinarritzen da.

Enpresa egiaztatzaileek ziurtatzen dute arau hori. 2004ko maiatzean honako institutuek lortu zuten ISO 9001:2000 ziurtagiria: Iruñako Navarro Villoslada, Plaza de la Cruz eta Iturramak eta Berako Toki Onak

Prozesuetan oinarritutako kalitatearen kudeaketa sistema eredu.

• Bikaintasunaren EFQM eredu.


EFQM eredu mota guztietako erakundearen kudeaketa hobetzeko erreferentzia marko ez-aginduzkoa da. Erakunde bat bikaintasunera aldoan ebaluatzeke erabil daiteke. Bikaintasuna esatean erakundearen kudeaketan eta emaitzen lorpenen praktika bikainak daudela esan nahi da, guztiak ere oinarrituko zortzi kontzeptu aplikatu ondoren:

- Emaitzetara orientatu
- Bezeroarengana orientatu
- Gidaritza eta koherentzia
- Prozesu eta ekintza bidezko kudeaketa
- Pertsonak garatu eta inplikatu
- Ikaskuntza, berrikuntza eta hobetze prozesu jarraituak
- Aliantzak garatu
- Erantzukizun soziala

Bikaintasun eredu kontuan izanda erakundeak aldian aldiko autoebaluazioa egitea errazten du, sistematikoki hobekuntza areak aurkitzeko eta ekiteko eta puntu indartsuak finkatzeko.

Kalitatearen Kudeaketarako Europako Fundazioak (EFQM) landutako kudeaketa eredu da, eta Europako herrialde gehienek bere egin dute. Nafarroako Gobernua Kalitaterako Nafarroako Fundazioaren bidez dabil kudeaketa eredu hori zabaldu eta indartu nahian.

Erreferentziako 9 irizpide proposatzen ditu, erakunde baten aurrerapena ebaluatu ahal izateko. Irizpide




Prozesuetan oinarritutako kalitatearen kudeaketa sistema eredu.

bakoitzaren definizioa dator, esanahi orokorra deskribatzen duelarik, eta bakoitzarentzako azpi-irizpide batzuk ditu ebaluazioan kontuan izan beharrekoak, justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

Honakoa izan daiteke ereduaren eskema: Erakunde bakoitzak, dena delakoa izanda ere, izateko helburu edo arrazoi bat du (2. irizpidea: politika eta estrategia) eta hainbat jardura eta prozesu kudeatzen ditu (5. irizpidea: prozesuak) bezeroei edo hartzaileei produktuak edo zerbitzuak eskaintzeko eta nahi dituen emaitzak lortzeko. Prozesuak kudeatzeko, erakundeko langileen lana, partehartzea eta sorkuntza eskaintzen ditu (3. irizpidea: pertsonak), baita eskura dituen baliabide materialak ere (4. irizpidea: baliabideak). Erantzuleak edo gidariak erakundea norabide egokian eramaten salatzen dira (1. irizpidea: gidaritza). Irizpide horiek guztiak dira agenteak.

Erakunde guztien helburua mota bateko edo beste-ko emaitzak lortzea izaten da. Baina emaitza horiek epe luzera baldintzatuta daude gure produktuak edo zerbitzuak hartzen dituztenen leialtasunarekin. Beraz, emaitzetan ez dira azkenekoak bakarrik izan behar kontuan (9. irizpidea: funtsezko emaitzak) bai- zik eta bezeroetan eta interes taldeetan izandakoak ere bai (6. irizpidea: emaitzak bezeroetan).


Pertsonen jardunak ere eragin handia du emaitze- tan, beraz, alor horretan izandako emaitzak ere kon- tuan hartu behar dira (7. irizpidea: emaitzak pertso- netan). Amaitzeko, erakundeak inguru sozialean duen inpaktuak ere eragina du epe luzerako emai- tzetan (8. irizpidea: emaitzak gizartean). Horrela bada, EFQMren ustez alor horietan guztietan neurtu behar dira emaitzak.






Kudeaketa sistema Nafarroako institutu publikoetan. Gure institutuatarako kudeaketa sistema definitzera-koan, enpresek dituzten ikuspegiak erabiltzen ditugu guk ere; izan ere, gure ustez, hezkuntza ongi kudeatzea beste edozein motatako enpresa edo erakunde ongi kudeatzea bezalakoa da. Hori bai, kudeaketa sistemak gure testuingurura moldatzen ditugu.


Aurrez aipatutako bietan oinarritzen den sistema bat diseinatu dugu.



Erreferentea bikaintasunaren EFQM eredua da. Autoebaluazioak egiten ditugu aldiari-aldiari eta horiei esker aurrera egiten dugu. ISO 9000 metodologia erabiltzen dugu kontrolak estandarizatzeko eta prozesua hobetzeko eta hobekuntzak ziurtatzeko.



Nafarroako Institutu Publikoetan kalitatearen kudeaketa sistemarako erabiltzen den diagrama



Zuzendaritzaren erantzukizuna. Iruñeko "Navarro Villoslada" BHI.

POSIBLE DA ESKOLA HOBETZEA

Gerardo Ollo Escudero. "Iturrama" BHIko Zuzendaria. Belen Apezetxea eta Joseba Ozkoidi (kalitateko arduradunak)
(ITURRAMA BHI, ISO 9000 eta EFQM Brontzezko Zigilua lortu dituen Nafarroako lehen zentroa da).

Guztiok dakigu Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Zentroek eta Lanbide Heziketakoei konpromisoa hartu dutela etengabeko hobekuntzaren inguruan. 2002 urtean, beraien memoriak Nafarroako Kalitate-rako Fundazioan aurkeztu ostean, hiru izan ziren konpromiso hori aintzatesten duen "Committed to Excellence" EFQM saria jaso zuten institutuak. 2003 urtean, berriz, beste bi institutu gehiagorekin batera, maila beretsuko beste sari bat jaso zuten Bureao Veritas-en eskutik: "Europar Kalitatea"ren zigilua edo brontzezko zigilua, alegia.

Etengabeko hobekuntzaren prozesu honi dagokionez, eta nire zuzendaritzapean dagoen zentroan oinarrituz gehienbat, ez gara zerotik hasi; zentro ezberdinetan burutzen diren egintza guztiak banan-banan dokumentatu, lanaren inguruko hausnarketa egin, eta egintza egokiak sistematizatu ditugu, beti ere, etengabeko hobekuntza mantenduz. Kudeaketa-sistema bat landu dugu, ondorengo prozesuetan oinarrituta:

- Ikasleak zentroan hartu eta integratzeko prozesua.
- Ikasgaiak programatzeko prozesua (zer irakatsi behar dugun).
- Ikasleak ebaluatzeko prozesua (guztion artean erabakitako irizpideen arabera).
- Tutoretza- eta Orientazio- prozesua.
- Eskola-jardueren prozesua.

Jarduera hauek guztiak kudeatzeko, irakasleek tresna propio bat izango dute: irakaslearen koaderno. Bertan, autokontrolaren printzipioari jarraiki, planifikazioaren jarraipena egingo da, jardueren eboluzioa eta kontrola eraman, ikasleen emaitzak eta hutsegiteak jaso, eta abar.

Irakatsi eta ikasteko prozesu horiez gain, kudeaketa-sistema bati dagozkionak ere gehitzen dira:

- Irakasplana (talde eta eskola-orduen antolaketa, ikasgelak eta ikasleakesleitu)
- Langileen kudeaketa
- Baliabideen kudeaketa (ekonomia-esleipenak, mantenu-lanak)

Jasotako informazioan berebiziko garantiza izan du "Zuzendaritzaren erantzukizunak, estrategiak eta urteko plana" deritzon prozesuak. Prozesu horretan, zentroaren zuzendaritzak plangintza estrategikoa bat nola egin ikasi du. Agiri hauek, laburrak diren arren, aberatsak dira edukiaren aldetik. Izan ere, jarduera nagusiak eta helburuak jasotzen dituzte, hau da, erantzun beharreko konpromisoak zeintzuk diren. Jarraipen bat egin bezain laster ikusi da zer den orain arte egindakoa eta zer den, oster, egiteko dagoena. Beraz, plangintza ez da intuizio hutsez egiten, baizik eta datuak kontuan hartuz eta metodo bati jarraituz. Hau guztia komunitateko sektore ezberdinekin adostu beharko da. Idazki labur honetan, institutuaren baloreak eta orientazio estrategikoa jaso behar dira

Zentroan, PDCA Deming deritzon hobekuntza-zikloaren arabera sistematizatu dira prozesurik garrantzitsuenak: prozesu bakoitzari kalitate-adierazle batzuk ezarri zaizkio. Behin ebaluatu eta gero, berauek zuzentzeko egintzak proposatu eta gauzatzen dira eta horrek, etengabeko hobekuntza ahalbidertzen. Modelo horiekin batera, ikuspegi horrek guztion interesak asetu nahi ditu: langileena, irakasleena, ikasleena eta senideena. Aipatutako hauez gain, kontuan hartu behar dira, baita ere: gizartea, hezkuntza-administrazioa, eta ikasleen jatorrizko zein etorkizunean joango diren zentroak.

Kudeaketa-sistema berriak bulkatzeko metodoak bertan lanean diharduten pertsona guztien oniritzia behar du, batez ere irakasleena.

Zentroen zerbitzu bat eskaintzen dute: ikastaroak ematea, alegia. Ikastarook zehaztapen, irizpide eta kalitate-adierazle batzuen bidez definitzen dira (eskola-orduak, edukiak, eskolek duten arrakasta...). Adierazle hauek ebaluatu ezkerreko analizatu dezakegu ea zentroan burututako lana bat datorren ala ez hartutako konpromisoarekin.

Ikastaroez gain zentroak beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, hala nola, garraioa, orientazio eta tutoretza, liburutegia, jarduera osagarriak, eskolaz kanpokoak, ikasgela eta gainontzeko eremuen erabilera, etab. Era berean, eta sistemak zentroei betebeharrak ezartzen dizkiola kontuan izanik, hezkuntza berezia behar duten edota hartzeko gaitasun ezberdina duten ikasleekin ere lan egiten da, Dibertsitateari Arreta emateko Egitasmoari erantzunez. Nire ustez, prozesuak kudeatzeak zentroen planifika-


zio hobia ahalbidertzen du. Bertan lanean diharduten pertsonak, zuzendaritza-karguek, sail ezberdinetako buruek, tutoreek, etab. guztiz zehaztuta dituzte bai jarduteko eremua bai erantzukizunak. Jarduteko modu erraz honek eguneroko jardun arruntan sor daitezkeen arazo asko saihestiaz gain, irakasle berriak zentroko zereginetan lehenbailehen integratzen laguntzen du.

Prozesuaren ebaluazioak balorazioa, zuzenketa eta hobetzea ahalbidertzen ditu. Auto-ebaluazioek, EFQM ereduari jarraiki, zentroaren puntu sendo sein ahulak detektatzen ditu. Behin klaustroak onartuta, urteko egitasmoen artean sartzen dira. Beharrezkoak diren zuzenketa-neurriak ere urteko egitasmo hauek inorporatzen dira.

Nik zuzentzen dudana zentroak, beste batzuekin batera, N1 izenaz ezagutzen den kalitate-sare bat osatzen du. Sare honen arduradunak hileroko biltzen dira lana elkarlanean planifikatu eta esperientziak zein izandako jarduerak egokiak trukatzeko. Modu honetara Zuzendaritza-Taldearen indibidualtasunetik, edo elkar lehiakide bezala ikusteak sortzen duen mesfidantzatik, taldean elkarlanean aritzera eta jarduerak egokiak gauzatzera pasatu gara. Irakasle talde sendo batek ilusioz burututako elkarlan- eta ahaleginengatik ez balitz, ezinezkoa litzateke orain arte ibilitako bidea egitea.

Lan guzti honek lankidetzaren ugari jaso du: SAREKArene (Gipuzkoako IKASLAN zentroetako Lanbide Heziketako Institutuetan kalitatea bulkatzen duen elkarteak), ADI-rene (BHletako Zuzendarien Elkartea), Hezkuntza Sailarene eta Nafarroako Kalitateko Fundazioarene. Kalitatea ebaluatzen duen KADINET programa aplikatu da. Gaur egun, lau saretan banatuta dauden 32 zentro dira konpromiso hau bereganatu dutenak.

ESKOLA KONTSEILUEN VI. JARDU-



Iturruma BHlaren plangintza.

ESKOLA KONTSEILUEN VI. JARDUNALDIA

Apirilaren 24an izan zen Eskola Kontseiluen VI. Jardunaldia "Hobekuntza planak zentroetan / ebaluazioa" gaia tratatzeko.

Jardunaldien inaugurazio ekitaldian Luis Campoy Zueco jaun kontseilaria izan zen buru. Kalitateari buruzko gaiak jorratzea egokia zela adierazi zuen, hezkuntza jarduerak etengabe aldatu beharra baitauka haren helburua "etengabe aldatzen" ari den gizarteko kide diren pertsonak prestatzea baita. Hezkuntzako kalitatea hainbat faktoreren mende zegoela aipatu zuen, besteak beste: "Egiazko Hezkuntza Komunitate kritikoa egotearen mende, kudeaketa elkarbanatua garatuko duena gurasoen, irakasleen, ikasleen eta kudeatzaileen artean arrazoiz banatutako helburuekin". Demokrazian bizitzeko gai diren hiritarrak prestatu behar dituela sistemak esan zuen, inor baztertuko ez duten hiritarrak, tolerantak, arazo berriei aurre egiteko gai direnak.

Nafarroako Eskola Kontseiluko Presidenteak, Javier

zea".

Santiago Arellano jaunak, INESCEko zuzendariak, egin zuen hitzaldi handian aipatu zuen penagarria dela ebaluazioak "hezkuntza sistemako errauskine izaten jarraitzea". Adierazi zuen hezkuntza-kalitatea helburu geldiezina dela, LOGSEN jasoa eta LOCEK inspiratua. Hori kontuan izanda, egituraren egonkortasuna ziurtatuko duen pakto politiko handi baten alde agertu zen, beharrezkoa zela esan zuen ahaztea "lasterketan ongien ibiltzeko hau edo bestea hobe izango denari buruzko eztabaida. Kalitatea, ebaluazioa, kontrola, emaitzak, hezkuntza arloan nagusi bihurtuko diren hitzak dira, jada auzotu ez badira". Legedian jasotako kalitatearen faktoreak aztertutako zituen, eta denen helburu bakarraren hasiera eta xede instrumentalak zirela esan zuen: "ikasle bakoitzari dagokion hezkuntza-erantzuna egoki asmatzea". Ebaluazioa "ukaezineko tresna da akatsak eta trebetasunak identifikatu eta emaitzak hobetzeko". Baloreetan trebatzearen (aurerikoko eskakizuna litzateke hori) eta oinarritzko konpetentziak hartzearen ondorioz ikaslearen osoko formazioa egon behar luke. Bestetik, ikasle bakoitza aintzat izan behar da "aukera guztiak bideragarri egiteko duen gaitasunaren arabera, gizarteko egoerak edo mota orotako diskriminazioak hori lortzea eragotzi edo zapuztu gabe". Horregatik, bere ustez "kalitatearen lehenbiziko printzipioa ekitatea izan behar da; hau da, nortasunaren erabateko garapena eta aukera berdintasuna izango duen segurtasuna".

Amaitzeko, hezkuntza adierazleen estatuko sistema egitean INESCEk izan duen erantzukizuna azaldu zuen.

Mahai-inguruan Sebastián Cerro, Alberto Arriazu, Juan Martín Tabar eta Julio Urtasun jaunek Nafarroako Foru Komunitateko zentro publiko eta pribatu batzuetan garatutako kalitate sistemari buruzko ikuspegi desberdin baina osagarriak azaldu zituzten.

223 lagun joan ziren, horietatik %69 zentro publikoetakoak ziren eta %31 pribatuetaoak.

Jardunaldiari buruzko ebaluazioa egin zuten joan zirenek, eta hona hemen emaitzak:



Nafarroako Eskola Kontseiluen VI Jardunaldia Zentroetako Eskola Kontseiluekin.

Marcotegui jaunak, aurkeztu zuen Jardunaldia. Hezkuntzari aplikatutako kalitatearen kontzeptua definitzea konplexua zela planteatu zuen, hezkuntza komunitatean horri buruz zeuden pertzepzio guztientzako egokia zen eduki unibokoko erantzuna ematea zaila zela. Hezkuntzako kalitateari buruzko bi orientabide handienak aipatu zituen: "Eskola eraginkorra" eta "Eskola hobet-

VI. Jardunaldiaren ebaluazio emaitzak

	Epea	Diptikoa	Jardun.	Antol.	Gaia	Dok.	Hizlari.	Mahai.
Oso egokia / oso interesgarria	%36,31	%19,75	%56,05	%28,66	%53,50	%28,66	%43,95	%33,12
Egokia / interesgarria	%59,87	%76,43	%39,49	%64,33	%42,68	%60,51	%45,22	%52,23
Normala	%1,27	%1,91	%1,27	%3,82	%3,18	%5,73	%7,64	%5,73
Eskaso / urria	%0,64	%0,64	%0,64	%0,00	%0,00	%0,64	%0,64	%0,64
Ez nahikoa	%0,64	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00
Ez du erantzun	%1,27	%1,27	%2,55	%3,18	%0,64	%4,46	%2,55	%8,28
Guztira	%100,00	%100,00	%100,00	%100,00	%100,00	%100,00	%100,00	%100,00



ZIURTAGIRIA ESKURATU DUTEN ZENBAIT ZENTRO BERRI

Jose Maria Irazoqui, "Toki Ona" BHIko Zuzendaria

Hezkuntza Komunitateak, Zentroak eta Administrazioak azken urteetan egindako lanari esker, lau Institutu publikok ISO 9001 kalitate ziurtagiria eskuratu dute. Horietako hiru, "Iturrama", "Plaza la Cruz" eta "Navarro Villoslada" Bigarren Hezkuntzako Institutuek EFQM konpromisoaren ziurtagiria jaso zuten 2002 ikasturtean, Kalitatearen Fundazioak emandakoa. Gainera, 2003 urtean, "Toki Ona", "Iturrama" eta "Donapea" Bigarren Hezkuntzako Institutuek EFQM Europak homologaturiko kalitateko brontzezko kalitate zigilua jaso zuten. Zorionak.

Berako "Toki Ona" Bigarren Hezkuntzako Institutua

Berako eskola-barrutia Nafarroako txikiena da. Bortziriak hartzen ditu barnean eta batez beste 60 bat neska-mutilek ikasten dute bertan ikasturte bakoitzean. Orotara, "Toki Ona" institutuan 283 ikasle hezten dira, bi heren gutxi gorabehera, 12 eta 20 urte bitarteko gazteak izan ohi dira.

DBH hiru hizkuntza eredutan ematen da ("A", "B" eta "D"); Batxilergoa modalitate guztietan (Arteena izan ezik) "D" ereduaren eta Lanbide Heziketan Produkzioko Mantentze eta Zerbitzuak arloko erdi mailako ziklo bat eta goi mailako ziklo bat.

Nafarroako Lanbide Heziketa Patronatuak 1967an Eskola Ofizial gisa sorturiko zentro bat da Toki Ona eta gaur arte, garaian garaiko beharren arabera garatu da.

Hau da "Toki Ona" Institutuaren eginbeharra: ikasleen eta beren gurasoen beharrei eta nahiei erantzungo dien hezkuntza zerbitzu bat ematea, kalitateko irakaskuntzaren bidez, eskola eta gizarte komunitatearen berrikuntza eta behar guztiak jasotzeko prest dagoena, heziketa integrala faboratuta, errespetua eta autoestimua sustatuta, norbanakoaren garapen mailatik abiatuta eta ugaritasunari erreparatuta, ikasleei hezkuntza eta lan munduan pertsona gisa garatzeko bide emateko.

Institutuak helburu hori lortzeko asmoz jartzen ditu martxan estrategiak eta indarrean dauden planak. Gainera, zentroaren jarreraren eta gaitasunen berri ematen duten ondorengo balio hauek ditu oinarri:

- Jarrera demokratikoen errespetua sustatzea, hezkuntza komunitateko kide guztien parte-hartzea eta laguntza bermatuta.
- Ikasleei garaiz iristen eta denbora aprobetxatzen erakustea.
- Sormena, autonomia eta izaera kritikoa bultzatzea.

- Bazterketarik eza bultzatzea, aukera berdintasuna errespetatuta eta integrazioa bultzatuta.

- Nork bere erantzukizunak eta funtzioak onartzen laguntzea.

- Etengabe hobetzeko gogoia sustatzea.

- Zentroko instalazioak eta norberaren eta besteen materialak zaintzea.

- Hizkuntza ezberdinak sustatzea eta batez ere Euskara berreskuratu eta normalizatzea.

Horretarako, komunitate osoak egindako Hezkuntza Proiektu bat eta datozen hiru urteetarako Plan Estrategiko bat ditu zentroak. Horiek urteko Planen bitartez garatzen ditu.

Kalitatea du oinarri (etengabeko hobekuntza) eta ebaluazioaren bidez bideratzen du.

98/99 ikasturteetik, arlo guztiak hartzen dituen kalitatea kudeatzeko sistema bat garatzeko aritu da lanean, eta ildo horretatik, 2003an Europako EFQM brontzezko zigilua eta 2004an ISO 9001:2000 Kalitate Ziurtagiria lortu ditu.

Ikasleen, familien, enpresen eta Zentroko langileen nahiak betetzeko konpromisoa du zentroak.

Hauek dira 04/05 ikasturtean lorturiko Eskola emaitzak titulazio bakoitzean: DBHn %92; Batxilergoan %100; Erdi mailako Zikloan %94 eta Goi mailako Zikloan %100. Gainera, Unibertsitatara sartzeko azterketa aurkeztu ziren ikasleen %100ek gainditu zuten.

AZKENEKO IKASTURTE HONETAN



Berako Toki Ona BHI. José Maria Irazoqui, zuzendaria, eta Andoni Errandonea, kalitateko arduraduna.

Perso

AZKENEKO IKASTURTE HONETAN NAFARROAKO ZENBAIT IKASLEK LORTU DITUZTEN SARIAK ETA AIPAMENAK.



Patricia Remiro, "Europa kulturaren eta kirolaren bidez ezagutzea" nazioarteko literatura-sariaren irabazlea

Patricia Remiro Corellako Artes Plásticas eskolako lehen mailako ikaslea da, eta "Ezagutu Europa kulturaren eta kirolaren bidez" nazioarteko literatur sarietako irabazleetakoa bat da. Zazpi eguneko egonaldia irabazi du Alemanian, Europako beste 30 gazterekin izango den topaketara joateko. Topaketaren helburua da Alemaniako historia eta kultura ezagutzea. Atenasko olimpiadetan kokatutako lanak kirol bati buruzkoa izan behar zuen. Patricia golf aukeratu zuen, Ryder Cup, hain zuzen ere. Partidu bat ematen ari den kazetari baten lana egin behar zuen, beharrezko elkarriketak egin eta kirolari buruzko iritzi artikulua idatzi. Kasu honetan drogari ez hartzeak eta kirol pikarokeriarik ez egoteak kirolarentzat dituen abantailak aipatu zituen.

Adriana Gordejuela, DBH 3koa, izango da Iruñako Santa Teresa ikastetxearen ordezkaria irailean Berlinen izango den "Gazteen Ekoparlamentua 2004" delakoa. Energia berriztagarrien erabilera sustatzea eta gas-energetikoa aurrezteko gizartea mentalizatzea da helburua. Ingurumenaren Liburu Zuria egingo da parte-hartzaile guztien ekarpenekin eta Europako Parlamentuan aurkeztuko da. Taldearen lana beste bi ikastetxetako ikasleekin laguntzarekin egin zen, bata Madrilgoa eta bestea Gaztela-Mantxakoa. Nafarroan dauden CO eta CO2 isuriak aztertu zituzten, zegozkien ondorioak atera eta isuri horiek kontrolatzeko ekintza proposamen zehatzak egin.



Adriana Gordejuela, Iruñeko "Santa Teresa" Ikastetxearen ordezkaria "2004ko Gazteen ekoparlamentuan".

Tafallako Cuatro Vientos institutuko eta BHI Politekniko-ko LHko zazpi ikasle (**Natalia Gonzalez, Raquel Huarte, Natalia Meirinhos, Almudena Sánchez, Ujué Romero, Evelyn Morales, Maria José Reta**) saria lortu dute "Gazte ekintzaileak Lanbide Heziketan" lehiaketan. Lehenbiziko saria "Guardería pitufitos" proiektuarentzat izan zen, Cuatro Vientos institutuko Administrazio eta Finantzako 2. mailako ikasleena. Bigarren saria, berriz, "Txikitxea"-rentzat, Tafallako BHI politekniko Administrazio eta Finantzako 2. mailako ikasleek egin. "Espiritu ekintzaileak sustatzen" nazioarteko kongresuan eman ziren sariak.

- "Nafarroa, hezkuntza eta kultur maila handieneko



"Lanbide Heziketako enpresa-sortzaile gazteak" lehiaketan saritutako ikasleak

rents

- "Nafarroa, hezkuntza eta kultur maila handieneko elkarte". Espainiako 2004ko Gizarte Urtekariaren arabera, hezkuntza eta kultur maila handieneko elkarte Nafarroa da, eta txikieneko, berriz, Gaztela-Mantxa. Magisterio 04-IV-14
- "Nafarroako ikasleak selektibitateko onenen artean". INE 2003ren estatistika baten arabera, 46 unibertsitate-tatik 14. gainditu indizea izan du. Diario de Noticias 04-III-30
- "Eskolako porrota BHletan ikasten duten mutikoetan kontzentratzen da". Magisterio Español 04-VII-7
- "Haurren eskola porrota ez dago ikastetxean, etxean baizik". José Benigno Freire. Diario de Navarra 04-VIII-4
- "Espediente onenei sariak". Erdi eta goi mailako zentroetako hamazortzi tituludunek sari bat jaso zuten amaierako notengatik. Diario de Noticias 04-V-21
- "Navarro Villoslada institutuko hamar ikasleak EBko Euroescola lehiaketa irabazi dute". Strasbourgerako bidaia bat irabazi dute. Diario de Noticias 04-V-26
- "Hezkuntzak Lehen Hezkuntzako ia 11.000 ikasle ebaluatu ditu duten maila ikusteko". Lehengo astean hasi ziren probak 2. eta 4. mailako ikasleentzat. Diario de Navarra 04-V-25
- "Salestarren marrazki bat izango da Espainiako talde

- paralimpiarraren maskota ofiziala Atenasen". Bost ikasle egin dute "Polaris" izarra. Diario de Navarra 04-V-21
- "Lau institutu publikok Kalitatearen ISO 9001 lortu dute". Iturrama, Navarro Villoslada, Berako Toki Ona eta Plaza de la Cruz dira lau zentroak. Diario de Noticias 04-V-21
- "Irakasleen erantzukizun zibila eta penala". Antonio Torres, hezkuntzako ikuskatzailea eta María Angel Muñoz, bigarren hezkuntzako irakaslea. Escuela Española 04-IV-1.
- "Azterketak berrituko". DBHko ikasleek lehenbiziko aldiz izan dituzte aurten azterketak irailean gainditu gabeko gaietan. Bi baino gehiagorekin errepikatu beharra daukate. Diario de Navarra 04-IX-2
- "Kalitatearen Legeak hizkuntzen irakaskuntza goitik behera aldatuko du 05-06 ikasturtean". Hizkuntza eskola ofizialeko ikasketak 5 urtekoak izatek 6koak izatera igaroko dira. Diario de Noticias 04-IX-2
- "LHri bultzada". Gobernuak 162.000 euro jarriko ditu lanbide heziketako zentro publikoek aurkeztuko dituzten berrikuntza proiektuetarako. Vivir Pamplona 04-V-20
- "LOCeren DBH: funtsa ala forma? Antonio Moreno Alcalde - Hezkuntzako ikuskaria. Escuela 04-VII-15

iblio

- Anuario Social de España. 2004. "La Caixa" fundazioa.
- "Crecimiento autonómico 2003: cambio de tercio". FUNCAS txostena (Aurrezki Kutxen Fundazioa)
- "Consejos y Programas de Formación Profesional en España (2002) Kualifikazioetako Institutu Nazionala.
- "Plan Nacional de Valoración (1995-1999) Movilidad". Kualifikazioetako Institutu Nazionala.
- "Guía de la Formación Profesional en España"(2002) Kualifikazioetako Institutu Nazionala.
- "Informe España 2004". Una interpretación de su realidad social. Encuentro fundazioa. CECS.
- "La Universidad Española en cifras 2004", CRUE
- "La Autonomía de los Centros Escolares". Educación aldizkari. Urtarrila-apirila 2004, 333. zk.
- "Religión y laicidad". Cuadernos de Pedagogía. 2004ko apirila, 334. zk.
- "La Salud del Profesorado". Cuadernos de Pedagogía. 2004ko maiatza, 335. zk.
- "Vivir la democracia". Cuadernos de Pedagogía. 2004ko ekaina, 336. zk.
- "25 Retratos de maestras". Cuadernos de Pedagogía. 2004ko uztaila-abuztua, 337. zk.
- "Educar para la paz". Cuadernos de Pedagogía. 2004 iraila, 338. zk.
- "Fundación Bartolomé de Carranza". Fundazioaren 25. urteurrena.
- "Prevención de la violencia escolar". Aula de Innovación Educativa. 2004ko ekaina, 132. zk.
- Informe del Sistema Educativo en Navarra (2002-

- 2003). Nafarroako Eskola Kontseilua.
- Memoria del Consejo Escolar de Navarra (2002-2003) Nafarroako Eskola Kontseilua.
- "Memoria septiembre 2002-diciembre 2003". Kanariar Uharteetako Eskola Kontseilua.
- 2003ko memoria. "Año Europeo de las personas con discapacidad". Nafarroako Gobernu. Ongizate, Kirol eta Gaztedi Departamendua.
- "Aportaciones teórico-prácticas para el conocimiento de actitudes violentas en el ámbito escolar".(2002). Emakumearen Nafarroako Institutua.
- 2003 urteko txostena. " De frente, frente a la violencia de género". Nafarroako arartekoa.
- "Micropolíticas y gestión escolar". Organización y Gestión Educativa, 2004ko uztaila-abuztua, 4. zk.
- "La enseñanza de la expresión escrita en todas las áreas". Hezkuntza Departamendua. Nafarroako Gobernu.
- "Estudio sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra. 2003". Competencia lingüística, uso y actitudes. Hezkuntza Departamendua. Nafarroako Gobernu.
- "Formación Profesional y Empleo: hacia un espacio común". Estatuko Eskola Kontseilua.
- "La Inspección educativa". Siglo y medio de la inspección educativa en España (1849-1999) Alfredo Mayorga Manrique.
- "La Gestión económica de los centros docentes públicos de enseñanzas escolares" Manuales de Procedimiento (2004) Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.
- Irakaskuntza pribatuko erakunde sindikalekin akordioa 2004ko ekainaren 25eko akordioa.



- Irakaskuntza pribatuko erakunde sindikalekin akordioa 2004ko ekainaren 25eko akordioa.
- Batxilergoko egituraren, antolakuntzaren, ordutegiaren eta aukerako irakasgaien curriculumaren garapena. F.A. 151/2004, ekainaren 15ekoa. (NAO 78. zk, 2004ko ekainaren 30ekoa)
- DBHko aukerako irakasgaien curriculum, nola eman eta DBH lauko aukerak. F.A. 152/2004, ekainaren 15ekoa. (NAO 78. zk, 2004ko ekainaren 30ekoa)
- Fitxategia sortu "Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak eta baldintza sozioekonomiko premiatsuei lotutako heziketa beharrak dituztenak". F.A. 89/2004, apirilaren 7koa (NAO 63. zk, 2004ko maiatzaren 26koa)
- Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan Gizartea, Kultura eta Erlijioa (katolikoa aukeran) eta Haur Hezkuntzan erlijio katolikoa irakasteko curriculum. ELGA/3509/03, abenduaren 15ekoa, (NAO, 2003ko abenduaren 17koa). Akatsen zuzenketa NAO 311 zk, 2003ko abenduaren 29koa.
- Erregimen orokorreko eskola ikasketak dituzten zentroentzako gutxieneko baldintzak ezartzea. E.D. 1537/2003, abenduaren 5ekoa. (NAO 295/2003, 2003ko abenduaren 10ekoa)
- Batxilergoko proba orokorra. E.D. 1741/2003, abenduaren 19koa (NAO 19. zk, 04/II/22)
- Espezializazio Didaktikoko Titulua arautzea. E.D. 118/2004, urtarrilaren 23koa, (NAO 30. zk, 2004ko otsailaren 4koa)

DBHKO AUKERAKO IRAKASGAIEN CURRICULUMA, IRAKASGAI HORIEK NOLA EMAN ETA DBH-

KO LAUGARREN KURTSOKO AUKERAK. EKAINAREN 15KO 152/2004 FORU AGINDUA (NAO 78 ZK., 2004KO EKAINAK 30)

Foru Aginduak (FA) indargabetu egin du ekainaren 25eko 249/1997a, DBHko zentroetako aukerako irakasgaien banaketa eta curriculum arautu zuena.

Aukerako irakasgaien espazioa berrantolatze beharra ikusi du arauak hizkuntzen eta Hizkuntza eta Matematika irakasgai instrumentalak ikaskuntza sustatzeko, nola oinarritzko mailan hala bikaintasuna lortzeko maila oinarriturik. Baita kultura orokorrean sakontzeko ere ikasleek berariazko trebakuntza ahaztu gabe.

Horren bidez arauaren helburua da lehen ziklorako diseinatutako aukerako irakasgaiak etapako helburu orokorrak garatzeko eta sustatzeko balio izatea, ikasleek interes anitzak kontuan izanda. Oinarritzko irakasgai instrumentalak zailtasunak dituzten ikasleek hizkuntza eta matematikako gaitasunak hobetu nahi dira horren bidez. Baina ikasteko arazorik ez dutenen hizkuntza eta matematikako gaitasunak sustatzea ere nahi da, eta horretarako diseinatu dira irakasgai hauek: Oinarritzko matematika, Literatur sorkuntza, Oinarritzko hizkuntza trebetasunak eta Matematika sakontzen.

Indargabetutakoa erabat aldatu du FAK, nahiz eta ondoren aipatutako aldaketak bakarrik sartu dituen. Beraz, DBHko aukerako irakasgaien zerrenda aldatu egin du, ezarpena arautu eta DBHko laugarren mailako aukera akademikoak berrantolatu. Dena dela, indargabetutako arauan aipatzen diren aukerako irakasgaien xedeari eutsi egin dio.

Ondorengo taulan ageri diren aukerako irakasgaiak ezarri dira

DBHko aukerako irakasgaiak***					
Irakasgaiak	Aukerako izaera				
	1 ^{er} mailan	2 ^o mailan	3 ^{er} mailan	4 ^o mailan	Zentroak eskaini
Atzerriko bigarren hizkuntza	BAI	BAI	BAI	BAI	Nahitaez
Oinarritzko matematika	BAI*				Nahitaez
Literatur sorkuntza	BAI**				Nahitaez
Matematika sakontzen		BAI**			Nahitaez
Oinarritzko hizkuntza trebetasunak		BAI*			Nahitaez
Informatika				BAI	
Kultura klasikoa A/B			BAI	BAI	
Lanbide hastapena /Melduarora eta bizitza aktibora igarotzea					
Literatura Unibertsala				BAI	
Geografia ekonomikoa					
Plastika eta ikus-hezkuntza				BAI	Nahitaez
Musika				BAI	Nahitaez
Teknologia			BAI	BAI	
Zentroak diseinatutakoa				BAI	
Curriculumeko aukeran hautatu gabekoa				BAI	Nahitaez

* Aukerako irakasgaiak gaien zailtasunak dituzten ikasleek har ditzaketen irakasgaiak.

** Aukerako irakasgaiak gaien zailtasunak ez duten ikasleek har ditzaketen irakasgaiak.

*** Zentroak eskaintako gaien koadroan azaldutako irakasgai bat hartu behar dute ikasleek ikasturte bakoitzean.

**** Laugarren mailan aukerako batzuk curriculumeko aukera batzuentzat baino ez dira hala. Esaterako, hori gertatzen zaie curriculumeko aukeran hautatu gabekarekin Gizartearen eta ekonomiaaren modalitate hartzen duten ikasleei; Teknologiaarekin modalitate zientifiko-teknologikoa hartzen dutenei; Literatura unibertsalarekin eta kultura klasikoa B-rekin modalitate zientifiko-teknologikoa eta praktika hartzen dutenei.

* Ikus 1990-2000 ateko Hezkuntza Sistemari buruzko txostenaren 4.3.2. puntua.



DBH 4ko curriculum aukeretako (ibilbidea) aukerako irakasgaiak			
Curriculum aukerak			Zentroek eskaini
Zientifiko -Tecnologikoa	Gizartearen eta ekonomiaren esparrua	Praktika	
Biologia eta Geologia	Kultura klasikoa B	Teknologia	BAI
Fisika eta Kimika	Geografia ekonomikoa	Helduarara eta bizitza aktibora igarotzea	BAI
	Literatura unibertsala		BAI

Laugarren mailan modalitate bakoitzeko aukerako irakasgaiak arauan aipatzen dira. Horren ondorioz, zentroek ezin dituzte curriculum aukera desberdinak diseinatu.

Indargabetutako arauan erregulatutako beste gaiak aipatzeko adinako gorabeherarik gabe kopiatu dira, atzerriko bigarren hizkuntzaren kasuan izan ezik. Irakasleak edukiz gero, bigarren mailatik aurrera maila desberdinetako taldeak antolatu ahal izango dira, lehenengo mailan irakasgai hori hartu ez arren.

Azkenik AFk onartu egin ditu aukerako irakasgaien curriculumak.

2004ko abuztuaren 4ko NAO 93. zenbakian akats batzuk zuzendu dira.

BATXILERGOAREN EGITURAREN GARAPENA, ANTOLAKETA, ORDUTEGIA ETA AUKERAKO IRASGAIAIEN CURRICULUM. EKAINAREN 15EKO 151/2004 FORU AGINDUA (NAO 78. ZK., 2004KO EKAINAK 30)

Foru Aginduak (FA) indargabetu egin du martxoaren 27ko 89/2002a, martxoaren 25eko 62/2002 Foru Dekretuak ezarritako batxilergoaren egitura garatzen duena.

FAk erabat ordezkatu du FA 89, nahiz eta asteko ordutegi orokorrari dagozkion aldaketak D eta D-A ereduak dauden zentroetarako bakarrik egin dituen, horrek eragina du A eta D ereduak Euskal Hizkuntza eta Literaturan, aukerako irakasgaietan, zentroak horiek eskaintzeko moduan eta ordutegian eta, azkenik, baita zentroak nahitaez eskaini beharreko aukerako irakasgai kopuruan ere.

G eredu edo G eta A ereduak aldi berean eskaintzen

dituzten zentroen asteko ordutegia 30 ordukoa izango da lehen bezala. Baina D edo D eta A ereduak aldi berean eskaintzen dituzten zentroetan asteko ordubete gehitu da eta orain astean 34 ordu izango dituzte. A ereduan Euskal Hizkuntza eta Literaturari dagokion ordutegia aukerakoen eremuan dago. Modalitateko irakasgaiak astean 4 orduz emango dira orain arte bezala.

Aukerako irakasgaiak dagokienez, astean ordubete gehiago izango dute orokorrean. Irakasgai horien eskaintza hiru bloketan egituratzen da helburua kontutan hartuta. Lehenbiziko blokean atzerriko bigarren hizkuntza I eta II daude; bigarrenean batxilergoko kultura orokorra zabaltzen duten gaiak (Literatura unibertsala, Nafarroako Geografia eta Historia); hirugarren blokeko irakasgaiak modalitate bakoitzeko berariazko trebakuntza indartzen dute. Azkeneko horiei esker, ondorengo ikasketetarako irteera gehiago dago eta unibertsitatean sartzeko frogetan bi motatako azterketak egin daitezke. Zentroek ikasturte bakoitzean gutxienez aukerako bat eskainiko dute bloke bakoitzean, irakasgaien egitura orokorra kontuan hartuta; ondorengo koadroan ageri da ordutegia. Maila bakoitzean hiru bloke horietako bateko aukerako irakasgai bat hartu beharko du ikasleak.

Lehenengo mailakoekin edukien arloan lotura estua duten aukerako irakasgaiak hartzeko bigarren mailan ezarri ziren berezitasunek irauan egiten dute. Baita aukerako irakasgai bat emateko behar den gutxienezko ikasle kopuruak ere.

Erlijioari eta Hezkuntza Jarduera Antolatuari buruzkoak ere irauan egiten dute.

Amaitzeko, FAK onartu egin ditu aukerako irakasgaiak buruzko curriculumak.

2004ko abuztuaren 4ko NAO 93. zenbakian akatsen zuzenketak datoz.

Honakoak dira aukerako irakasgaiak:

Batxilergoko aukerako irakasgaiak		
Edozein modalitaterako	Arteen modalitaterako	Natur Zientz.: ibilb. ingeniariaritz
Atzerriko bigarren hizkuntza:Alemana	Arte lanategiak	Geologia
Atzerriko bigarren hizk.: Frantsesa	Formaren matematika	
Atzerriko bigarren hizkuntza:Ingelesa	Bolumena II	
Nafarroako Historia eta Geografia		
Literatura Unibertsala		

Batxilergoko curriculumeko ikasgaiak 151/2004 Faren arabea ⁷						
Irakasgaiak	Modalitatea ibilbidea		Lehenengo maila	Ordutegia	Bigarren maila	Ordutegia
Komunak			Gorputz hezkuntza	2	Historia	4
			Filosofia I	3	Filosofia I	3
			Gaztelania eta Lit. I	4	Gaztelania eta Lit. II	4
			Atzerriko hizkuntza I	3	Atzerriko hizkuntza II	3
			Euskal hizk. eta Lit I* (D)	4	Euskal hizk. eta Lit II* (D)	4
Bera- riazkoak	Arteak		Marrazk. artistikoa I	4	Marrazk. artistikoa II	4
			Marrazk. Teknikoa I	4	Marrazk. Teknik. II **	4
					Artearen historia	4
			Arte lantegiak **	4	Irudia**	4
			Itxuraren Matematika**	4	Diseinuaren oinarriak**	4
			Bolumena I	4	Bolumena II**	4
					Adierazpen grafiko-plastikoaren teknikak **	4
	Natur eta Osasun Zient- ziak	Osasun Zient- ziak	Biologia eta Geologia ***	4	Biologia	4
			Fisika eta Kimika	4	Kimika	4
		Zientziak eta Ingeniarit- za	Matematika I	4	Lurraren eta ingur. Zientziak	4
			Marrazketa Teknikoa I ***	4	Matematika II	4
					Geologia	4
					Fisika	4
					Marrazk. Teknikoa II	4
					Matematika II	4
					Fisika	4
					Biologia**	4
					Kimika**	4
	Giza eta Gizarte Zientziak	Humanitatea	Mundu garaikidearen Historia	4	Latina II	4
			Grekoa I	4	Grekoa II**	4
			Latina I	4	Musikaren Historia **	4
					Artearen Historia	4
		Gizarte Zient- ziak	Mundu garaikidearen Historia	4	Geografia**	4
			Gzei aplikatutako Matematika I	4	GZeI aplikatutako Matematika II	4
			Ekonomia	4	Geografia	4
					Enpresen Ekon eta antolaketa	4
		Humanitatea Gizarte Zient- ziak	Gaur egungo Historia	4	Artearen historia **	4
			Latina I	4	Geografia	4
			Aplikatutako Matematika I	4	Latina II	4
			Ekonomia**	4	Aplikatutako Matematika II	4
				Enpresen Ekon eta antolaketa**	4	
				Artearen historia **	4	
				Fisika **	4	
				Matematika II**	4	
	Teknologia	Fisika eta Kimika	4	Industri Teknologia II	4	
		Matematika I***	4	Marrazketa Teknikoa II	4	
Industri Teknol. I		4	Elektroteknika**	4		
			Mekanika	4		
Marrazketa Teknikoa I		4	Elektronika** Aukerakoa	4		
			Aukerakoa	4		
Aukerakoak			Aukerakoa	4		
Besteak			Er/HJA	2		
			Tutoretza	1		
Orduak guztira				30		30

* D ereduaren ikasten dira. A ereduak ikasleek irakasgai horiek aukerakoen arloan izango dituzte, oro har.

** Hirugarren blokeko aukerako irakasgaiak.

*** Hirugarren blokeko aukerako irakasgaiak modalitatea batzuentzako: Biologia eta Geologia Zientzia eta Ingeniaritza modalitateko; Marrazketa Teknikoa I Osasunaren Zientzia modalitateko.

⁶ Ikus 1990-2000 arteko Hezkuntza Sistemari buruzko txostenaren 4.7.2 puntua.

⁷ Aipatutako 62/02 FDK eta 89/02 FAK ezarritako diseinu berriaren arabera.

De

editor

MONOGRAFIKOA: Zentroetako Hobekuntza Planak / Ebaluazioa

KALITATEA HEZKUNTZAN

Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluko Presidentea

Hezkuntza komunitateko kide guztiek hezkuntza-kalitatearen alde egiten dute lan; etekinak hobetzeagatik. Nazioarteko erakundeak (UNESCO, ELGA, Mundu Bankua...) heziketaz arduratzen dira eta kalitate mailarik handienak eskatzen dituzte heziketarako. LOGSEko IV. titulua hezkuntzako kalitateari buruzkoa da. Kalitatea da hezkuntzaren kalitateari buruzko 10/2002 Lege Organikoaren izateko arrazoia. Inor ere ez da hezkuntza-kalitatearen aurka aritzeko bezain burugabea.

Denok kezkatzen gara hezkuntza sistemako kalitateaz. Zergatik ez dago, beraz, gai hori behar adina konponduta? Nire ustez, kontzeptu horren beraren edukia zehaztea erraza ez delako.

Kalitatea esatean objektu bati buruz aritu ordez pertsona bati, ikasle bati, buruz ari bagara, zein izan behar dira kalitatearen faktoreak? Kontzeptu hori aplikatu al dakioke heziketa prozesuari bere emaitza nortasuna osatzea izanda? Kalitatearen faktore bezala hartu behar al da hezkuntza prozesuaren bidez pertsonari gehitu zaion balioa edo bere garapen osorako egin duen aurrerapausoa? Nola neurtu bi alderdi pertsonal horiek? Zer ari da sistema ematen aukera berdintasun printzipioari? Eta gizarte integrazioari?

Hezkuntza arloan eztabaida asko izaten da kalitate-

aren zergatiari buruz, baina oso gutxi kontzeptu horren esanahiari buruz. Kalitateaz ari bagara, hezkuntzaren helburuak zein diren argitu beharko dugu. Kasu horretan ezin da saihestu hezkuntzan askatasuna izatearen eskubide konstituzionala, hezkuntzako edukiak norberaren konbikzioetara doitzen dituen, ezta baliabide publikoak eta oinarrikoak gizarte eta ekonomia politikan aplikatzeko eraginkortasun printzipioa ere. Hezkuntzaren oinarrian egon behar du trebatzeko ondasunak eskura berdin izatea ere, aukera berdintasuna erraztu behar du gizarte desberdintasunak gainditzeko. Desberdintasun horiek hainbat arrazoigatik egon daitezke: jaiotzetik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik. Azkenik, aniztasuna batzen duen komunitate bateko kide izatearen sentimendua sorrarazi behar du sistemak, guztien balioek parte hartzen dutena; hau da, gizarte kohesio handiagoa sustatu behar du.

Kalitateaz ari bagara, ezin dugu bazterrean utzi eguneroko, ohiko kudeaketaren markoa, eskolarena, behar diren bitarteko eta prozesuena. Zer egin "eskola eraginkorra" izan dadin, ikasle guztien garapen globala lor dezan salbuespenik gabe aurrez dituzten baldintzak kontuan hartuta? Zentroetako zuzendaritzaz arduratzen direnak, berriz, eskolen funtzionamenduaz arduratzen dira. Ikasgelak eta zentroak etengabeko hobekuntza funtzionala hasteko, "eskolako eraginkortasuna" pixkanaka hobetzeko, zer egin behar duten galdetzen diete euren buruei.

Hezkuntzako kalitateari eskaini zaion lan monografiko honetan, kontuzko gai honi heltzeko adituen, guraso elkarteen, hezkuntza-agintarien eta irakasleen iritziak bildu nahi izan ditugu. Eztabaida lasaia hasi nahi izan da, kalitatearen bidezidorrean irizpidez beterik egin ahal izateko aurrera.

a

eskolara